

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko irailaren 21a • II. urtea • 34. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**ASTEKO EZTABAIDA: ONDORIO ONIK ATERA
LITEKE EEBBen KONTRA EGINDAKO ERASOTIK /7**



Goienka2a

Ur-bilatzaileak:
dohaina ala
jakituria?

KIROLAK

Kenci Arrasate taldeak
zapatuan hasiko du
denboraldia /10

HERRIZ HERRI

Arkeologia indusketak egingo
ditu Osintxun Aranzadi
Zientzia Elkarteak /4

MIKEL ETXAGIBEL

*"Zinemaldia herritarrei
ireki nahi diegu" /9*

ZORTZI UDALEK ETA EUSKADIKO KUTXAK HITZARMENA SINATU DUTE

Euskararen erabilera bultzatzeko plana

Debagoieneko zazpi udalek, hau da, Leintz Gatzaga izan ezik beste guztiek, eta Aramaiok, hitzarmena sinatu dute Euskadiko Kutxarekin, gure ibarrean eus-

kararen erabilera bultzatzeko. Hitzarmena aste honetan sinatu dute alkateek eta Euskadiko Kutxako zuzendari Juan Jose Arrietak Olandixon, Mondrago-

en. Udalen eta finantza erakundearen artean eta horien eta herritarren artean euskara erabiltzeko hainbat neurri hartzeko konpromisioa hartu dute aldeek. /2-3

Artzain Txakurren Nazioarteko Txapelketa domekan Oñatin

Jende asko espero dute domekarako Artzain Txakurren Txapelketako antolatzaileek. Prest dute guztia dagoeneko, eta txapelketa jokatu den Santa Lutzia zelaia ere ondo ei dago. Hamaika txakur eta artzain arituko dira lehian, nazioarteko artzain txakur onenak, gainera. Izan ere, Euskal

Herriko herrialde guztietako txapelkunak, Kataluniako txapelkunak eta Biarnokoak parte hartuko dute domekan. Baita iazko txapelkunak ere, Isaac txakurra eta Jean Marc Chicorp artzaina, hain zuzen ere. Aurten, 42. aldiz jokatuko da txapelketa Santa Lutzia zelaian. /4

ARRASATE

**Ibilgailuak ezin
izango dira alde
zaharrea ibili**

Arrasateko alde zaharra oinezkoendako da oraingo martitzetik aurrera. Ondorioz, Erdiko Kale, Ferrerías, Iturriotz, Olarte, Maisu Arano, Seber Altube eta Maalako Errabalean ibilgailuak goizez bakarrik sartu ahal dira, 08:00etatik 13:00etara, hain justu. Domeketan, berriz, egun osoan itxita egongo da erdigunea ibilgailuendako. /5

ESKORIATZA

**Auzoetara joango
dira gripearen
txertoa ematera**

Irailaren 17an hasi eta urriaren 31ra arte hartu ahal izango da gripearen aurkako txertoa. Herrian bizi direnek txanda hartu behar dute txertoa hartzera joan aurretik, auzoetakoek, berriz, ez dute Eskoriatzaraino etorri beharrik izango, bertara joango dira eta erizainak. Zerbitzua iaz jarri zuten abian. Kanpaina ibar osoan hasi dute. /5



MUren ikasturtearen inaugurazioa Oñatin

Mondragon Unibertsitateko errektore Jabier Retegik eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariak MUko ikasturte berria inauguratu zuten eguaztenean Oñatin. Haiekin batera, beste hainbat agintari, erakunde publikoetakoak zein unibertsitatekoak, ere batu ziren Santa Ana jauregian. Lehendakariak eta errektoreak kritikatu egin zuten Madrilgo gobernuak egin nahi duen Unibertsitate Lege berria. "Sistema unibertsitario propioa ezarri eta Legebiltzarrean horri dagozkion legeak bultzatzeko" prest agertu zen lehendakaria. /3

LENIZ MOTOR

JUAN M. ZUAZUBISKAR

**BASO, LORATEGINTZA ETA
NEKAZARITZARAKO
TRESNAK**



Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78

VIKING

STIHL

Euskarari bur

Zortzi udalek eta Euskadiko Kutxak euskararen aldeko hitzarmena egin dute

IKER BARANDIARAN

Pasa den eguaztenean, Arrasateko Olandixo gainean Euskadiko Kutxak daukan egoitza nagusian, Debagoieneko zortzi alkatek eta Euskadiko Kutxako zuzendariak, Juan Jose Arrietak, euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten. Ekimenak badu garrantzia, batez ere zortzi herri-tan aurrera eramango delako, eta baita bezero asko dituen entitateak halako esku-hartzea izango duelako.

Dena den, Debagoieneko Udalak ez dira aitzindari izan Euskadiko Kutxarekin sinatutako hitzarmenean, aurrez UEMAN dauden Udalak eta baita Goierriko eskualdeko herriek ere sinatu baitzuten. Horretaz gain, Arrasateko Udala Gipuzkoako Kutxarekin honen antzeko beste hitzarmen bat sinatzea aztertzen dabil, seguruenik herri gehiagotara zabalduko dena.

Bestalde, gure bailarako zenbait Udalek "Euskararen Hitzarmena" gisa ezaguna den beste hitzarmen bat aspalditik martxan dute. Hain zuzen ere, Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletan bertako merkataria eta erakunde ugari euskararen erabilera indartzeko apustu handia egiten dihardute.



Irudian, Debagoieneko zortzi alkate eta Euskadiko Kutxako zuzendari nagusia den Juan Jose Arrieta hitzarmenaren ekitaldian.

Bailarako herriak eta Euskadiko Kutxa

Pasa den eguaztenean, irailak 22an, Euskadiko Kutxak Olandixoko maldan duen egoitzan, Euskadiko Kutxako zuzendari nagusiak, Juan Jose Arrietak, eta Debagoieneko zortzi alkatek

(Mireia Unamuno -Antzuola-, Iñaki Nafarrate -Aramaio-, Angel Bergaretxe -Aretxabaleta-, Xabier Zubizarreta -Arrasate-, Edorta Zubizarreta -Eskoriatza-, Angel Mari Iturbe -Oñati-, Patxi Basauri -Elgeta- eta Victoriano Gallastegik -Bergara-) euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten.

Euskadiko Kutxak eta ibarreko udalek hitzartutakoa

1. Elkarren arteko harremanak, aholkoak eta idatzizkoak, euskaraz izango direla.

2. Euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko direla haien funtzionamenduko esparru guztietan eta, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituztela.

3. Euskaraz bakarrik azalduko dela Euskadiko Kutxak kutxazain automatikoen sarean instalatua duen eta

pantailan azaltzen den sarrerako agur aldakorra.

4. Euskadiko Kutxak konpromisoa hartzen duela Debagoieneko bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan, euskararen presentzia ugaltzen ahalegin berezia egiteko, bezero euskaldunek zerbitzua euskaraz jaso dezaten. Horretarako, hitzarmen honen epe amaiera iristerako, bezero euskaldunei helarazten dizkien idatzizko informazio, eragiketa eta gainerako guztiak euskaraz

bakarrik helarazteko ahalegina egingo duela. Gainerakoei idatzi elebidunak bidaliko dizkiela, eta euskaraz lehentasuna izango duela horietan. Arreta berezia jarriko duela gazteen libreta titular direnen arloan, aurreko lerroetan adierazia garatu eta gauzatzeko. Sakonagoko mailegu eta inbertsio dokumentuak ere gutxienez elebietan jarriko dituela hitzarmen honen epea amaitu baino lehen.

Bezeroen helbideak, oro har, udalek ofizialki euskaraz erabakita

dituztenean, euskaraz idatziko direla. Udalek zerrenda ofiziala emango diotela Euskadiko Kutxari.

5. Euskadiko Kutxak konpromisoa hartzen duela ahalegin berezia egiteko Debagoieneko bulegoetako euskararen presentzia (horma irudietan, iragarrietan, idatzietan, etab.) gehitu eta euskaraz lehentasunez eskaintzeko. Horretarako, bulegoetako kartelak euskarazko alde bakarrik irakurtzeko moduan jarriko dituela eta gainerakoetan euska-

razkoak gehiago eta nabarmenago. Sukurtsal bakoitzean idatzitako bateko oharretan ere bide bera jarraituko duela.

6. Euskadiko Kutxak informazioa zabaltzeko eta eragiketarako egiteko sortutako banka elektronikoko zerbitzuetan ere euskarazko aukerak eskainiko dituela hitzarmen honen epea amaitu baino lehen.

7. Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate,

Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñatiko udalek hitzarmen honen berri emango dietela beren herritarrei.

8. Konpromiso hauek, hasteko, hiru urterako hartzen direla eta hitzarmen hau eraginkorra izan dadin, aldeek jarraipen batzordea eratuko dutela, goian aipatutako helburuen lorpena eta emaitzak aztertzeko. Jarraipenaren maiztasuna sei hilerokoa izango dela, baldin eta aldeetako batek, sarriago biltzeko eskatzen ez bada.

uzada

JUAN JOSE ARRIETA / Euskadiko Kutxako zuzendari nagusia


"Denon borondatea izan da"

Euskadiko Kutxak sorreratik duela euskararekiko kezka adierazi digu sorraluzear honek. Eta horregatik, bereziki, euskaldun zaharrei zuzendutako 25 ekimenetatik gora abian jarri dute.

Zergatik egin duzue hitzarmen hau?

Euskararen normalizazioan urrats bat izateko asmoarekin. Debagoieneko Udalek eta Euskadiko Kutxak aspaldidanik euskal kulturarekiko lotura izan dugu. Eta orain euskararen normalizazioa lortu nahi badugu, nahitaezkoa da horrelako ekintzak bultzatzea eta aurrera eramatea. Akaso urrats txikia da, baina eragina izan dezake eguneroko harremanetan. Kasu honetan finantza-erakundeekin dugun harremana euskaraz egiteko ahalgina eta aukera ematen digu.

Noiz eta zelan jaio zen ideia? Hemengo Udalek denbora berente daramate herritarrekin



"Nahiko genuke euskara gaztelaniaren parean egotea. Badakigu zaila dela, baina ez dugu etsi behar eta hau urrats bat da"

harremanak euskaraz gauzatu nahian, eta guk ere bestelako udal batzuekin izenpetu ditugu horre-

lako hitzarmenak (UEMAko Udalekin, Goierriko Udalekin). Kasu honetan denon borondatea izan da. Eta helburu berdinak ditugunez, erraza izan da bien gogoak eta helburuak uztartzea.

Zer ekarriko du hitzarmen horrek, batez ere Debagoienean?

Nahiko genuke euskara gaztelaniaren parean egotea. Badakigu zaila dela, baina ez dugu etsi behar eta hau urrats bat izan daiteke hori lortzeko.

Debagoienak berezitasunik badauka halako ekimena bultzatzeko?

Hemen, biztanleen kopuru handi batek euskara daki. Gure lankideen artean ere asko dira: %90etik gora, baina batzuetan euskara lagunen arteko harremanetarako erabiltzen dugula eta ez laneko harremanetarako. Arrazoi horregatik, hain justu, erakunde barruan proposatu dugu, abian jarri dugu eta oso ondo onartu dute, lanean euskara lantzea eta suspertzea.


EDORTA ZUBIZARRETA / Eskoriatzako alkatea

Euskararen erabilera handia da"

Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako alkatea, Debagoieneko zortzi Udalek eta Euskadiko Kutxak egin berri duten hitzarmena sinatu zuten pasan den asteazkenean. Hori aprobetxatuz, hitzarmen honetatik eta eskoriatzarren euskararen erabilerean inguruan mintzatu ginen.

Euskararen erabilera areagotzeko beste halako hitzarmenik egin duzue udalerrian?

Batez ere, aspaldian egin dugun hitzarmen garrantzitsua Goierriaren egitasmoaren alde bailaratu zen baita udaltek sinatu genduen izan zen. Hori nabarmenduko nuke. Horretaz gain, duela pare bat urte, herriko enpresetan euskaraz bultzatzeko kanpaina bat egin genuen, baina ez zen hitzarmenik egin. Baita herriko merkataritzan eta ostalaritzan ere, kartelak euskaraz jartzeko erraztasunak emanez, eta abar... Horretaz gain, ludoteka eta Euskal Txo-ko eraiki genituen, Astroki eus-



"Hitzarmenak baino, merkatari, ostalari eta industrien arloan euskaraz bultzatzeko kanpainak egin ditugu, batez ere"

kara elkartearen bitartez, eta nahiko martxa onean dabilta.

Zein izango da Eskoriatzako

Udalaren eginbehar nagusia hitzarmen hau gauzatzeko?

Hemendik aurrera Euskadiko Kutxarekin izango ditugun harreman guztiak euskaraz izan daitezten saiatuko gara. Horretaz gain, hitzarmen honen bitartez, nolabait Euskadiko Kutxak bezeroekin dituen harremanak euskaraz izatera behartuko dugu. Adibidez, kutzazain automatikotik euskarari lehentasuna ematea.

Zer nolako euskara erabilera dago udalerrian?

Nik uste dut gero eta handiago dela. Gazteei gero eta gehiago entzuten zaie euskaraz hitz egiten. Ikastetxeetan D eredu asko nagusitzen da. Adin batetik behera guztiak euskara badakite. Nagusiek ere euskara erabiltzeko joera handia dute. Salbuespena 30etik 45 arteko adin tartea da, hauek gutxiago hitz egiten dutelako. Eskoriatzako biztanleriaren %40k euskara ez dakiela kontuan hartuta, erabilera handia dago.

Bailaran, labur

ELKARTASUNA

Aretxabaletako EAJ-EA koalizioak elkartasuna adierazi dio alkateari

Aretxabaletako EAJ-EA koalizioak elkartasuna adierazi dio Anjel Bergaretxe alkateari. Anjel Bergaretxe alkateak barruan bala bat zuen mehatxuzko gutuna jaso zuen abuztuan, eta orduz geroztik, hainbat elkartasun adierazpen jaso ditu. "Mehatxuen aurrean biktimizeko elkartasunak eta biolentziaren gaitzespenak berdintzen ditu demokrata guztiak. Aretxabaletako EAJ-EAko zinegotziek behin baino gehiagotan utzi dute agerian elkartasun eta gaitzespen jarrera hori", dio EAJ-EAko igorritako idatziak. Era berean, EAJ-EAko salatu egin du gai horretan alkatetzarentzat eta bere talde politikoarentzat hedabideen indarra eta alderdikeria nagusitu direla, eta gaineratu egin du eurek Udala elkarbizitza giroan bideratu nahi izan dutela beti: "Ez dugu ulertzen alkatezatzak Gobernu batzordearen isileko erabaki bat apurtu izana, osoko bilkuren aurretik gaiak Gobernu batzordeko kideen artean lantzeko konpromisoan zetzana". Azkenik, idatzian adierazi dute euren borondatea ez dela aldatu, eta bakearen eta Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren eta demokratikoaren alde lanean segituko dutela. /GORKA ETXABE

DENDA BERRIA

Goi mailako kirolariak Sportland kirol denda berriaren irekitze ekitaldian

Martitzenean ireki zuten Arrasaten Sportland kirol denda berria. Besteak beste, Aitor López Rekarte, Agustín Arantzabal eta Alberto López Realeko jokalaria, Alberto Iñurrategi eta Jon Lazkano mendigoizaleak, Ruben Gorospe eta Alvaro González de Galdeano txirindulariak ikusi genituen denda berriaren inaugurazioan. Haiekin batera, Esteban Uribealzo eta Genar Andrinua, Astorekoa eta Forumekoa, hurrenez hurren. /E.A.

IKASTURTE HASIERA

Mondragon Unibertsitateak ikasturte berriaren hasierako ekitaldia egin du

Ikasturte berriaren hasierako ekitaldia egin zuen eguaztenean Mondragon Unibertsitateak Oñatin. Unibertsitateko, Eusko Jaurilaritzako eta legebiltzarreko ordezkariak zabala izan zen Santa Anako ekitaldian. Irekitze hitzaldia Pedro Miguel Etxenike honoris causa doktoreak egin zuen. Jabier Retegi errektorearekin batera, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Juan Maria Atutxa Legebiltzarreko presidentea eta Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldu nagusia izan ziren, besteak beste. Unibertsitateko errektore Jabier Retegi oso kritikoa azaldu zen hezkuntza sistema berriarekin eta Madrilgo gobernuak egin nahi duen unibertsitate lege berriarekin. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateen artean lankidetzak bultzatzeko beharra azpimarratu zuen. Bestalde, Juan Jose Ibarretxek esan zuen Jaurilaritzak ez zuela baztertzeko "sistema unibertsitario propioa ezarri eta Legebiltzarrean horri dagozkion legeak bultzatzea". Mondragon Unibertsitateari aurrerantzean lanean jarraitzeko eskatu zion lehendakariak. Ireki berri den ikasturtean Telekomunikazioetako Ingeniari Teknikoaren eta Telekomunikazioetako eta Telematikaren espezializazioen tituluak ezarri dituzte. Era berean, MUK etorkizunean dituen eronken artean, Goierriko campus berriaren sorrera azpimarratu dute unibertsitateko buruek. /G.E.



OÑATI

ARTZAIN TXAKURREN LEHIAKETA

Hamaika txakurrek parte hartuko dute domekako txapelketan

Aurten, 42. aldiz jokatu da nazioarteko txapelketa hori Oñatin

AINTZANE IRIZAR

Jende asko espero dute domekarako Artzain Txakurren Txapelketako antolatzaileek. Prest dute guztia dagoeneko, eta txapelketa jokatu den Santa Lutzia zelaia ere ondo ei dago. Esan bezala, hamaika txakur eta artzain arituko dira lehia, nazioarteko artzain txakur onenak, gainera. Izan ere, Euskal Herriko herrialde guztietako txapeldunak, Kataluniako txapeldunak eta Biarnoako parte hartuko dute domekan. Baita iazko txapelduna ere, Isaac txakurra eta Jean Marc Chicorp artzaina, hain zuzen ere. Duela bost urte hartutako erabakiari jarraituz, Euskal Herriko ordezkarien txakur guztiak euskal artzain txakurrak izango dira, eta gainerakoak, berriz, Border Collie arrazakoak.

Aurten ere, urtero moduan, hiru ariketa egin beharko dituzte txakurrek: banderatzoz markatuta dagoen bidea egin beharko du txakurrak, artaldea markatutako toki jakin batera eramatea eta artaldea eskortan sartzea, besteak beste. Guztira punturik gehien lortzen dituenak



Nazioarteko txakurrik onenak lehiatuko dira Santa Lutzia zelaian.

irabaziko du. Irabazleak 40.000 pezeta eta Oñatiko Udalak emandako garaikurra eramango ditu, Nestor Basterretxearen Euskal artzainari monumentua eskulturaren erreplika bat, hain justu.

Aurtengo gonbidatu berezia Pako Iriondo izango da, Euskadiko Mendi Federazioko presidentea izandakoa. Bestalde, azkenengo urtetan egiten duten moduan, Don Jose Maria Agi-

rrebaltzategi zenaren omenezko saria emango dute. Aurten, baina, bi emango dituzte. Izan ere, Oñatin jokatzeko den txapelketa-ekin harreman zuzena izan duten bi pertsona hil dira aurten, eta euren senitartekoei emango diete oroigarria; batetik, Jean Michelle Bidart artzaina omen du nahi izan dute eta, bestetik, Edu Ugalde, Bizkaiko Txapelketako antolatzaileetako kide bat.

BERGARA

ARKEOLOGIA

Arkeologi indusketak egingo dituzte Osintxun

Tailer batean topatutako aztarnak XVI. mendeko ermita batenak izan litezke

MONIKA BELASTEGI

Osintxuko tailer zahar batean, indusketa lanak hasiko dituzte Aranzadi Zientzia Elkarte adituek, irailaren 25ean. Izan ere, tailer zaharra dagoen tokian, XVI. mendeko edo lehenagoko ermita bat egon liteke.

Antzinako hainbat dokumentutan jasota dagoenaren arabera, Osintxuko elizaren parean, erreka gainean, ermita bat zegoen. Horrez gain, tailerreko dokumentazioan ere, ermita baten gainean eraiki zutela agertzen da. Bestalde, antzinatasunari dago-kionez, ermitaren inguruko aipamen dokumental zaharrenak XVI. mendekoak dira.

Hori horrela, Bergarako Udal Museologia eta Diputazioko teknikari bat tailerreko hurbildu eta tailerra baino zaharagoak diren horma zati bat eta kontrafuerte bat aurkitu zituzten.

Aipamen dokumentalak eta topatutako aztarnak direla

eta, azterketa sakonagoa egitea erabaki du Udalak. Aranzadi Zientzia Elkarte arkeologoen irailaren 25ean hasiko dituzte indusketak. Aipatutako aztarnak dokumentuetako ermitari badagozkio, aurkikuntza garrantzitsua izango da, Gipuzkoan ez baitago XVI. mendeko ermita askorik.

ARMARRIAK ZAHARBERRITZEN

Trinitateko komentuarien aurrealdeko horma dauden bi armariak zaharberritzeko erabakia hartu du Gobernu Batzordeak. Armariak nahiko egoera kas-karrean daude, eta hainbat zati galduta. Zaharberritze lanak urrian hasiko dira, eta lehenengo, armariak garbitu egingo dituzte, ondoren harria gogortzeko. Lanen aurrekontua bi milioi eta erditik gorakoa da.

Bi armarien berritze lanez Eudald Gillamet izen handiko zaharberritzailea arduratuko da. Egino Mailea etxea berritzeaz arduratu zen berbera.

Zertzelada

Aztarnak XVI. mendeko ermitarenak badira, aurkikuntza oso garrantzitsua izango da. Izan ere, Gipuzkoan ez dago garai hartako ermita askorik.

ANTZUOLA

IKASTAROAK

Urrian hasiko dira gimnasia eta aerobic ikastaroak

Eguzki auzoan emango dituzte eskolak

AINTZANE IRIZAR

Urriaren 1ean hasi eta datorren urteko uztaillaren 17ra arte gimnasia eta aerobic ikastaroak emango dituzte Antzuolan. Gogoratu Gizarte Etxeko lanak direla-eta, lokal berriaren emango dituztela ikastaroak, Eguzki auzoan, hain zuzen ere. Izena emateko epea zabalik dago irai-



Irailaren 27ra arte dago izena emateko aukera.

laren 27ra arte, eta udaletxean eman beharko dute izena interesatuta daudenek, goizeko 8:00ak eta 15:00ak bitartean. 3.000 pezeta ordaindu beharko da matrikula, eta hileroko kuota, berriz, 2.500 pezetakoa izango da. Dena dela, ikastaroa bukatzen dutenei itzuli egingo diete matrikula. Gehienez 20 pertsonendako izango dira ikastaroak.

ARAMAIO

Kontserbagintza ikastaroa eta Txirritola Eguna, irailerako

UBANE MADERA

Txirritola elkarte indarberrituta bueltatu da udako oporretatik. Horren adierazle da dagoeneko pare bat ekitaldi antolatu dituela irailerako. Horrela bada, datorren hilaren 25 eta 26an kontserba ikastaroa izango da Jakion enpresaren eskutik, zaharren egoitzan. 17:30ean ekingo diote, eta lehenengo egunean eskola teorikoa izango da eta bigarrenegun praktikoak. Neguan hain erabilgarriak izaten diren jakiak kontserban sartzen ikasteko aukera eskainiko du Txirritolak. Ohi moduan, doan izango da, hortaz ez dago izena eman beharrik.

TXIRRITOLA EGUNA

Horrez gain, hil bukaerarako, 30erako, Txirritola Eguna antolatu dute. Iazko ohiturari jarraituz, Txirritola elkarte sortu zela ospatuko dute aramaiorrek. Egunean bertan egingo diren ekitaldiez gain, hurrengo zapatuan, urriaren 6an, antzerkia izango da. Txirritolak 2 urte beteko ditu datorren martxoan.

ELGETA

HAURTZAINDEGIA EGITEKO ASMOA

Udalak haurtzaindegia egin gura du Torrealdeko etxeetan

Momentuz, Maalan koka liteke haurtzaindegia, umeez jolasteko lekua dago-eta

IBAN ARANTZABAL

Elgetan badago beharra eta gurasoek hori jakinarazi diote udalari. Nekez aurkitzen da seme-alabak zaintzeko jendea, eta horrek arduraz sortu du umeak dituztenengan. Aspaldian, bi urte betetzen dituzten umeak haur eskolara eramaten dituzte aita-amek. Hala ere, umeentzako hezigunea aurkitzeaz gain, Udalak jaioberriak direnetik hiru urte bitarteko ume

guztjentzako leku bila dabil. Proiektu hori bultzatzeko arrazoietako bat da umeak Elgetatik kanpo dauden haurtzaindegietara joaten hasi direla. Aspaldian, arazoa larritu egin dela esan digu Elgetako alkate Patxi Basaurik: "Guretako, egokiena elgetarrak kanpora irten beharrik ez izatea da, eta horren alde egingo dugu beti.

Arrasateko Udalarekin harremanetan jarri gara legedia, kostuak eta gai horren gainean dauden puntu guztiez jabetzeko. Eta orain, gaia zehaztu ostean, egotza posibleen bila gabiltza". Udalen asmoa, dena dela, hurrengo urteari begira egoitza aurkitzea da: "Momentuz, Maalan dauden eskolak (rock taldeak erabiltzen dituenak) ikusten gabiltza eta eraikin hori egunen baten botatzekoa bada ere, pro-

bisionala izan daiteke irtenbidea; izan ere, aurreko aldean umeak jolasteko leku aproposa du eta hori guztia beharrezkoa da umeendako. Etorkizunearan, Torrealdeko geratutako da oinezkoendako leku handia behin etxebizitzak egin eta gero. Gainera, Udalak lokalak izango ditu gune horretan eta haurtzaindegirako egokiak izan daitezke.

Zertzelada

Gurasoekin kontsultatutako du Udalak eta aita-amek ematen dien erantzunaren arabera jokatu du. Torrealdeko haurtzaindegia, Udalen lokaletan

ARRASATE

ALDE ZAHARRA OINEZKOENDAKO

ESKORIATZA

GRIPEAREN KONTRAKO TXERTO

Ibilgailuak aurrerantzean ezin izango dira alde zaharrean ibili

Herritarrek ondo hartu dute oinezkoendako bakarrik izatea

UBANE MADERA

Arrasateko alde zaharra oinezkoendako da oraingo martitzetik aurrera. Ondorioz, Erdiko Kale, Ferrerías, Iturriotz, Olarte, Maisu Arano, Seber Altube eta Maalako Errebalean ibilgailuak goizez bakarrik sartu ahal dira, 08:00etatik 13:00etara, hain justu. Domeketan, berriz, egun guztian itxita egongo da erdigunea ibilgailuendako.

Salbuespen moduan, martitzaren arratsaldetan zabaldu egingo dute erdigunea, tartetxo batez: 18:00ak eta 21:00ak bitartean. Baina, bakarrik alde zaharrean errolatuta daudenendako eta zama-lanak egiteko. Ibilgailuen sarturitena galarazteko piboteak ipini ditu Udalak alde zaharreko sarretan. Eta, piboteak zabaltzeko urruneko aginteak atera zituen Udalak irailaren 1ean. Alde zaharrean errolatuta daudenek edo errolatuta egon barik garajeren bat dutenek eskuratu zitzaizketen urruneko aginteok. Udalak uztaillean iragarri zituen aldaketa hauek guztiak, baina, bizi-lagun batzuk ez ziren jabetu eta martitzenean auzotar bat baino



Piboteak erabili dituzte alde zaharra ixteko.

UBANE MADERA

gehiago bere garajera sartu ezinda ibili da.

HARRERA ONA

Horrez gain, piboteak irekitzeko urruneko agintea duten bizilagun batzuk ere izan dute arazorik eta sartu ezinda ibili dira. Jose Mari Urizar "Ametzuk", Udaleko Zerbitzu buruak adierazi digunez, "posible da jendeak oraindik ez ulertzea urruneko agintearen funtzionamendua, eta gaizki erabiltzea. Dena dela, guk geuk ere

frogak egin behar ditugu".

Edozelan ere, ezusteko hauek kenduta, oinezkoendako gunearen estreinaldia nahiko ona izan dela adierazi digu Zerbitzu buruak, "jendeak nahiko ondo hartu du eta ez da arazo larregirik egon. Urruneko agintea ez duten bizilagunak badabiltza Udalera etorri eta erosten. Gainera, kalean hasi da igartzen lasaitasun berezia; jendea lasai dabil kalean, eta bereziki, umeak".

MIRARI ALTUBE

Urtero moduan, udazkenarekin batera, gripearen kontrako txertoaren kanpaina hasi da Euskal Herriko osasun etxeetan. Eskoriatzan, irailaren 17an hasi eta urriaren 31ra arte hartu ahal izango da txertoa.

Herrian bizi direnek txanda hartu beharko dute txertoa hartzera joan aurretik, auzoetakoek, berriz, ez dute Eskoriatzaraino etorri beharrik izango, bertara joango dira eta erizainak. Zerbitzu hori ez da berria, iaz ere hala egin zen, eta ohean dauden gaixoak eta mugitzeko arazoak dituztenak hartu dira kontuan.

Atzo, eguena, jarri zen abian zerbitzua eta Apotzagako auzotarrak izan ziren txertoa hartzen lehenengoak. Irailaren 25ean, berriz, Marulandan egongo dira 13:00etan, baita Marinen ere, baina auzo horretan baserriz baserri joango dira. 26an, 10:30ean,

Leintz Gatzagan izango dira erizainak eta 27an, 10:45ean, Boliarren. Zarimutz eta Mazmela ere joango dira, baina baserriz baserriko zerbitzua emango dute aurrez telefonoz zehaztu ostean.

LUDETEKAK ERE

IKASTURTE BERRIA HASI DU

Ikasturte berria hastearekin batera, iaz, maiatzean, inauguratu zen ludoteka lanean hasi da. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean dago zabalik eta ordu eta erdiko bi txanda ditu. Lehenengoan, haur hezkuntzako eta LHko lehenengo bi kurtsoetako umeak egoten dira eta bigarrenean, LHko 3, 4, 5 eta 6. mailetakoa. Bi lagun arduratzen dira ume eta gazte horiek guztiak zaintzeaz. Prezioa, berriz, 4.600 pezeta da; hori bai, anai-arrebak dituztenei eta Axtrokiko bazkideei prezio berezia egiten diete. Eskolak hasi bai, baina jolasteko aukera ere izango dute ume eta gaztetxoek.

Zertzelada

Auzoetakoek ez dute Eskoriatzaraino etorri beharrik izango, auzoetara bertara joango baitira erizainak txertoarekin. Ohean dauden gaixoak kontuan hartu dituzte zerbitzua jartzera

ARETXABALETA

SAHARIARREKIKO ELKARTASUNA

Saharako errefuxiatuei elkartasuna adieraziko diete asteburuan

Zapatu goizean kanpaleketako denda bat izango da ikusgai

IMAGOIA LASAGABASTER


Asteburuan, hainbat kanpaleketan bizi diren saharar errefuxiatuekiko elkartasun jardunaldiak egingo dira herrian. Ramon Erathia eta Joseba Larrinaga atxalarrak urte hasieran Saharako errefuxiatuen kanpalekuak bisitatzen izan ziren. Bidaiatik buel-

tan, han bizitako eta ikusitako gutzia herriari kontatzeko konpromisoa hartu zuten. Eta horixe bera egingo dute erakustaldi baten bitartez oraingo asteburuan.

Egubakoitz arratsaldean, Saharako herriaren historia, eta gaur egun errefuxiatu kanpaleketan bizi duten egoera kontatzeko hitzaldua egongo da. Horrekin batera era-

kusketa zabalduko dute Murruxoko egoitzan. Erakusketa zapatu ilunkara arte izango da ikusgai.

Zapatu goizean, berriz, herritarrek errefuxiatuen kanpaleketako bizimodua nolako den jakiteko, jaima bat (kanpaleketako denda), jarriko dute herriko plazan. Eurria eginez gero Iturrigorri frontoian jartzen ahaleginduko dira.



Kanpaleketan ateratako argazkiak ere ikus ahal izango dira.

LAN ESKAINTZA

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK,

2 kazetari behar ditu Goiena Telebistan eta Arrasate Irratian lan egiteko.

BALDINTZAK

• Euskara ondo jakitea. • Gidatzeko baimena edukitzea.

BALORATUKO DA

- Informazio eta Giza Zientzietan lizentziatua izatea.
- Testu prozesatzaileak erabiltzen jakitea.
- Medioen ezagutza.
- Bailara ezagutzea.
- Autoa edukitzea.

Interesatuok Curriculumak irailak 30a baino lehen aurkeztu, GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAKen egoitzan edo postaz bidali. Nafarroa etorbidea, z/g (Saiolan eraikina) 20500 ARRASATE. Tef.: 943 71 23 90



Gizonak Emakumeak

JANTZIAK

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Ibai-arteren bazkide ibai-arte

Zabalik

ELENA
LAKAEuskara
barrixa

Euskaltzaindiak diñosku bere kongresuan gure hizkuntzak aurrera egingo badau herrixetako euskeriak kontuan izan bihar dittugula, eta ez bakarrik orain arte erakutsi doskuen euskara batu estandarra. Mendebaldeko euskalkixan dihardunon artian esango dau baten batek Euskaltzaindiak XXI. mendian erruberia asmatu dabela. Ia ba.

Esan nahiko ete dau honek hamendik aurrera Debatik edo Zumarragatik haruntz ez gaittuztela baserrittartzat hartuko "jausi jata" esaten dogunian, ez gaittuztela martziatnotzat hartuko "pasatzen lagako dostazu" esaten dogunian, eta ez gaittuztela txarto begiratu "zelan zagoz" galdetzen dogunian edo "barixakuan berba eingo dogu" erantzuten dogunian. Esan nahiko ete dau hamendik aurrera batuko "arras ongi" dotorea eta gure "oso ondo" arlotea parekatu eingo direla; batuan dihardutenek ulertuko doskuela "berba", "ostean", "eskuma", "zapata", "biharra", "ipini", esaten dogunian, edo, behintzat, ulertzen ez badoskue, lotsatu, ez harrotu, eingo direla ez ulertzea-gaitik. Duintasuna, behintzat, irabaziko ete dogu.

Ez da horren gatxa: zelako ohittuta gaozen gu "gauz bat", "tori", "izandu naiz", "erranen dizut", "bederen", "eseri", entzuten, ulertzen, miresten. Bakoitzari beria, baña inor gutxietsi barik. XXI. mendeko euskeriak kontuan izango gaittu, eta gu, espabilau biharrian, "si ikusi dotsut", "baleikedot jun", "yogurt de fresa jan biot" esaten. Ondio ikusi bihar dittugunak.

Gutunak

Irailak 26, hizkuntzen eguna Europan

Irailaren 26an hizkuntzen eguna ospatuko da Europan. Kontinente zaharrean hizkuntza ugari dago eta egun horren inguruan hizkuntza guztien aldeko mezuak entzungo ditugu, aniztasuna eta baita mes-tizajearen aldekoak ere.

Euskaldunok, ordea, ezin izango dugu gure hizkuntza babesten duen legedia gorai-patu: ez dugulako. Euskara ez dago normalizatua Euskal Herriko inongo lurraldetan. Hauxe da euskararen diagnosi objektiboa.

Euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubide osoa dugu; horretarako, euskararen normalizazioa eta lege berri bat lortzeko beharrezkoa da euskaltzaleon adostasuna eta elkarlana. Horrela lortuko dugu euskara Euskal Herrian eta Europan hizkuntza ofiziala izatea. Horrela lortuko dugu Europa berdintsu eta anitzagoa. Irailaren 29an eguerdiko 12:30ean Bergarako plazan egingo den manifestaziora dei egiten dizuegu.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
BergaraBegia begi truk,
bortxaren jatorri

Estatu Batuen aurkako eraso bortitz eta ikusgarriak milaka biktima eragin ditu, hiltzea merezi ez zuten lagunak. Dagoeneko ezer gutxirako balio duten kondena asko entzun ditugu, baina zergatik eraso diete Dorre Bikiei, Kapitolioari eta Pentagonoari? Edo bestela esanda: zergatik eraso diete Estatu Batuetako botore ekonomikoaren, politikoaren eta militarrearen gune nagusiei? Erantzuna, nire ustez, Osaba Samek azken hamarkadetan gauzatutako kanpo politika erasokor eta suntsitzalean topatu behar dugu. Yankiek hamaikatxo gerratant esku hartu dute, zuzenki nahiz zeharka, eta zenbait herrialde ekonomikoki itozten ari dira. New Yorkeko irudi apokaliptikoak ikusten ditugun bitartean ezin ditugu Hiroshiman eta Nagasakin, Vietnamen, Kuban edota Iraken hildakokak eta sufritzen ari direnak ahaztu. Izan ere,

memoria historikoa gaur egungo gertaerak ulertzeko behar-beharrezkoa da.

Dena den, eraso jo omen duen talde integratistak herrialde arabiarrek bizi duten egoera latza salatzea izan ei du helburu; Palestina Bush agintera helduz geroztik Israelen mende bizi da, eta ehunka palestinar hil dira; Irakeko umeak gosez hiltzen dira estatubatuarrek indarrean mantentzen duten blokeoa dela-eta; Afganistan nazio-artetik presio izugarria sufritzen ari da...

Argi gera dadila lerro hauen bidez ez naizela irailaren 11ko atentatuak justifikatzen ari, baizik eta nire ustez eraso era-gin duten arrazoiak azaltzen.

Orain egun gutxi George W. Bush presidentek iragarri zuenez, "luze joko duen gerra baten atarian gara". Estatubatuarren gehiengoak umiliazio handia sufritu omen zuen, eta Afganistanen hastear den gatazka militarri esker beren mendeku egarria asetuko dute. "Amerikan" patriotismoak gora egin du, eta komunitate arabiarrenganako harremanak gaiztotu daitezke. Bushek talde islamisten fanatismoa salatu du, baina berak aldi berean "Ongia eta Gaizkia" bezalako kontzeptu erlijiosoak darabiltza odol isurketa justifikatzeko. Nor da fanatikoagoa?

Bide batez, esan dezadan, Estatu Batuak izan zirela talibanak Afganistango agintera heltzea ahalbidetu zutenak, eta garai batean Osama Bin Ladenekin elkarlanean aritu zirela. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Bestalde, Golkoko Gerran gertatu bezala, nazioarteko krisi honek gure eguneroko bizitzan eraginik izango du, herrialde arabiarrek petrolio upelaren prezioa igoko baitute seguruenik. Baina bestela gauzek berdin jarraituko dute gurean, ezta?

Ondorio onik atera liteke Estatu Batuei egindako erasotik? Ezetz uste dut.

GONTZAL LANDA
DebagoienaELA-Torunsak
bertako langileei

LAB, UGT eta CCOO publiko egin duten Loharra eta Torunsari buruz duela egun batzuk azaldu diren panfletoak direla eta, ELAk bere jarrera eta gogoetak bertako lan-

gileei adierazi nahi die, eta hori ondorengo gogoramenetan oinarrituta:

Lehen.- Garbi gera bedi sindikatu honek ez lukeela jokabide hori hartuko, ezta ere gaia horrela erabili, Torunsari buruz anonimoki Bergaran azaldu zirene ohar haiek bezala.

Bigarrena.- Baina baita ere garbi utzi nahi duena da Torunsako zuzendaritzaren partetik gizarte gaitetan, eta zehazki bere langileekiko portaera, nahiko eskasa dela.

Enpresa honek, eta ez dugu lehenengo aldiz esaten, adostasun eta elkarriketa bidean saiatuko den jokabidea onartu ordez, beste molde eta trikimailu batzuk erabili ditu, arbuigarriak sarri, XXI. mendea heldu eta gero, eta langileek diogunaren berri badute.

Hortik datoz Lan Ikuskaritza, Ordezkaritza, Epaitegi, Lan Osasun Sail eta abarri zuzendutako eskabideak, sarri eskubide osoz hauek egiten zituztenak mehatxatutak izanik.

Hirugarrena.- Sinatzaile zen sindikatu batek berri eman zigula guk ere sinatuko ote genuen, eta ezetza eman genion errealitatea zatikatuta aztertzeari eta, bide batez, sindikatu eta zuzendaritzaren artean bilera bat proposatu, azken honi aurrerantzean bere jokaera aldatu beharra zuela adierazteko, zigorra kendu ezarri ziotenari eta harremanak hobetu. Hala gertatu izan balitz beste jokaera bat azaleratu ahal izango genuke ELAren aldetik. Bazurdi gure jarrera zuzena zena, baina bilerearen noiz eta nola zehaztu gabe, oharra argitaratu zuten (horregatik gure sinaduraren falta eta eskuetan duzuen azalpena).

Laugarrena.- Sindikatuen oharrean egindako zenbait baiezen arriskutsuak iruditzen zaizkigu, izan ere, ematen duten ikuspegia eta panfletoaren jukua egiten dute langilearen zigorraren kontra ezer aipatu gabe, jokabide desegokia aitzakia.

Bosgarrena.- Amaitzeko, oso garbi uztea ELArentzat, UGT, LAB eta CCOO sinatutako oharrean ez bezala, ez direla batzuek eta besteak baizik eta Torunsako langileak, zeintzuk saiatuko den defendatzen ahal denik hoberen, eta zuzendaritzari buruz ere gure nahia harremanak hobetzea da, baina horretarako derrigorrez pasa beharko du benetako elkar errespetuaren bide-tik eta bakoitzaren papera onartu lan harremanetan.

ELA-TORUNSA
Bergara

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Estabaida


Joan zen astean Estatu Batuetan gertatutakoak munduko herrialdeen arteko harremanak aldatuko ditu; edo argitu behinik behin. Bakoitza bere lagunekin

lerrokatuko da, eta on eta txarren arteko ezberdintasuna areagotuko da. 2001. urteko irailaren 11, beraz, ez dugu inoiz ahaztuko. Ilun daude gauzak. Baina, askotan aipatu den

bezala, egoera okerrenetatik ere ondorio onak atera daitezke. Horrela pentsatu ohi dute baikorrenek. Baina, Hala al da oraingoan ere? Ikusiko dugu...

Ondorio onik atera liteke EEBBen kontra egindako erasotik?

Herrien eta pertsonen arteko gorrotoa handitu



MIKEL LEZAMIZ
Soziologoa

New Yorken eta Washingtonen izandako gertakizun beldurgarrietatik ez da inoiz ondorio onik ateratzen, herrien eta pertsonen arteko mina eta gorrotoa handitu egiten baita. Iparramerikarrak are arrazistagoak bihurtuko dira musulmanekiko, eta hemendik aurrera fobia izango diete.

Ondorio bat da, liburu katastrofistak askoz gehiago saltzen hasiak direla munduan zehar, eta Nostradamus astrologoak eta filosofoak XVI.

mendean iragartzen zuen bezala, III. Mundu Gerra hasi daitekeela. Esaten dute, Hirugarren Gerra uraren boterea nork edukitzeagatik edota erlijioagatik hasi daitekeela, eta Estatu Batuek gerra hasten badute norbaiten aurka —oraindik ez dakigu ondo, baina musulman batzuen aurka izan daitekeela dirudi—, islamiarrek Gerra Santua hasiko dute, eta gehienok zipriztinduko gintuzke.

Arazo larri honetan berriro ikusiko da Europa ez dagoela batuta, eta bakoitzak bere aldetik joko duela. Hor daukagu Aznar buru-belarri eta ezer kritikatu gabe, bere baimena ematen Bushi eraso jotzeko, eta zorionez beste politiko batzuk hasiak dira esaten gauzak poliki eta ondo pentsatuta egin behar direla eta ez berotasunean, horrek ondorio oso larriak ekarriko lituzkeelako.

Amerikarrek munduko nagusiak direla pentsatu arren, Asian eta Europan desberdin pentsatzen dute, eta puntu kontrajarriak azaltzen ari dira pentsamolde autoritarioari. Garbi dagoena zera da: garai hauetan herrialde askok daukatela beste herrialde bat eta mundu osoa ere desagerrarazteko beste indar (bonba atomikoak), eta ezin dela jokatu berotasunaren arabera ondorioak neurtu gabe.

Euskal Herriari begira ere ondorio latz bat ikusten dut: PP alderdiak eskuak libreago ikusten dituela edozein astakeria egiteko euskaldunon aurka, Aznar eta bere jarraitzaileak parekatu nahian ari baitira hemengo indarkeria eta New Yorken gertatutakoa, eta amerikarrek edozeini eraso egiten badiote, hemengo edozein euskalduni eta gure herri eskubideei ere eraso egin diezaieketela usteko baitute. Argi ibili.

"Hona begira ere ondorio latz bat ikusten dut: PPK eskuak libreago dituela edozein astakeria egiteko"

Artxibo ezkutuetak zabaldu eta barkamena eskatu?



AITOR ITURRIAGA

Sobiet Batasuna ustel hura desegin zenetik 90eko hamarkadaren hasieran, zorakeria gero eta handiagotan erortzen ari da mundua: Iraken aurkako bonbardaketak eta zigorrak Nazio Batuen gidaritzapean; Balkanetako gerra luze eta krudela OTANen agindupean; Errusiarrak Txetxenian egiten ari diren genozidioa; Palestinako herriaren kontra Israel egiten ari den sarraskia; Asia, Afrika eta Ameriketako nazio pobreen aurka kapitalismo basati eta globalizatuaren eraso... Horiekin guztiakin batera, beste ehunka gatazka txikiago (Euskal Herrikoa barne) bukatu ezinik.

Oso gauza kuriosoa da aztertzea azken hamar urteetako munduaren bilakaera. Gogoratzen dut, adibidez, Irakeko gerra hasi zela Kuwaiteko okupazioa gertatu eta handik bost hilabetera, Nazio Batuen Erakundearen dozenaka abisu eta erabakiren ondoren. Eta jende askok ez zuen uste hasiko zenik ere. Gaur da eguna goizean goiz irratia pizten dugula morbo osoarekin, Afganistango bonbardaketak hasi ote diren jakiteko, denok segurutzat jotzen ditugu eta.

Estatu Batuak sinistuta daude euren sheriff paperarekin eta mundu osoak ez die ezetik esaten. Horrela euren tirania gero eta handiagoa izango da. Arazoa zabalduz joan daiteke, zeren sheriffaren morroiek (Espainiako gobernuaren barne) estilo bera erabili nahi izango dute euren estatuetan: inpunitatea, eskubideen murrizketak, salbuespen egoerak... Oraingo aitzakia terrorismoa da. Historian beste aitzakia batzuk izan dira inperialismoa eta injustizia justifikatzeko: kristautasuna, demokrazia, ekonomia... Eta ez ahaztu Estatu Batuak beti izan direla gertu munduko gerretan parte hartzeko eta gatazka berriak sortzeko. XIX. mendean, Maine korazatua saboteatu zuten, Espainiari errua bota eta Kubako gerran sartu ahal izateko. Era berean, II. Mundu Gerran sartzeko Pearl Harbourko bonbardaketa erabili zuten. Gaur egun, ezagun da aurretik zutela japoniarren planen berri. Hala ere, biktimak izatea interesatzen zitzaion.

Zergatik ez dugu pentsatu behar aurreko asteko atentatuaren atzean ere muñtara erraldoi bat dagoenik? Agian berrogeita hamar urte barru presidente sinpatiko batek artxibo ezkutuetak zabaldu eta barkamena eskatuko du. Txilekoarekin egin zuten bezala.

"Estatu Batuak sinistuta daude euren sheriff paperarekin eta mundu osoak ez die ezetik esaten"

Gora eta Behera

AFGANISTANDARRAK



Nahikue sufritu dauen herrixe inungo justifikaziño barik zigorketie, mundu zoro honetan gertau leiken beste absurdo bat besterik ez da. Urte luzietan gerran egon dan herrixoi, oin Talibanen menpe dau. Paradoxa barregarri edo negargarrixo: Talibanok poderien badaz, CIA santuaren laguntza zerutiarraz izen da. Hola ba, gora Afganistaneko ume, aurpegi bako emakuma eta abarrak.

BUSH ETA BERE IPURDI GARBITZAILIAK



Behera, %80 gerriaren alde dazelako, parra dutzo zeinen kontra; nahiz eta euren miña ulergarrixo izen. Beti euki dau munduko estatu boteretsuenak etsai, Satan edo Sadamen, baten bihera, bestela ze egingo leukie ba euren arma eta zarramarrekin. Behera, eurak munduko salbatzailliak diela pentsetan dauielako. Ze munduko salbatzaillie eta ze kristoi!



MIRIAN TXINTXURRETA
Badihardugukoa

Koplak

New York, New York

Jausi dira bai, jausi betiko Amerikako bikiak, hundiusteko asko bezala ahulak bezain txikiak.

Ez nau larritzen New Yorken bi dorre jausi izateak, baizik munduan milaka jausi daitezkeela pentsatzeak!

Urkoekiko errukirikan azalduko ez dutenez, non hasi diren ondo dakigu, non bukatuko duten ez.

Ta Amerika ei da munduko demokrazi handiena: arazo denak mendeku bidez konpontzen saiatzen dena.

Eta munduko beste herriek azaldu duten jarrera... nahi duten dena eiten digute ta guk lagundu gainera!

Bada garaia gauzak hotzean pentsatzen hasi gaitezen eta ikusi zer dagon txarto eta zer dagon zuzen.

SAIOA ARANDO

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zer deritzozu diskoak erosi beharrean, kopiatzeari?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin

SAILLETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

Mikel Etxagibel

DONOSTIAKO ZINEMALDIKO ZUZENDARIORDEA

“Zinemaldia herritarrei zabaldu nahi diegu, bereziki oso zinemasale ez direnei. Horientzat gune berria ireki dugu Kursaalena”

Zuzendaritza talde berria du Zinemaldiak. Urteetan arduradun nagusi izan den Diego Galan-en ordez, Mikel Olaziregi ariko da aurten. Eta, haren laguntzaile, gerente lanetan, mondragoetar bat, Mikel Etxagibel (48 urte), hain justu. Besteak beste, ETBko programazio arduradun eta Bilboko Guggenheim museoko zuzendariorde izandakoa da.

ENEKO AZKARATE

ETBn eta Guggenheim museoan jardun duzu lanean eta, orain, Zinemaldian zabilta. Biak ere iritzi publikoari edo jendeari begirako lanak dira. Horrek ardura handiagoa ematen dizu?

Proiektuak abiatzea gustatu izan zait beti, alegia, gauza berrietan murgiltzea. ETBn hasi nintzanean, ikusle-kopurua handitzea zen erronka, eta %20 baino gehiago igotzea lortu genuen. Gero, Guggenheim museoan lan egiteko deitu zidaten eta gustura hartu nuen. Ez zen lan erraza, ez geneukalako inolako erreferentziarik. Azkenik, Mikel Olaziregik deitu zidan Zinemaldirako eta hala hasi nintzen aurtengo urtarrilean. Zinemaldia nazioartera zabaltzea, teknologia berrietan sartzea eta geroago eta herritarrago egitea dira erronka nagusiak. Uste dut badagoela zer hobetu, nahiz eta Zinemaldiak oso irudi ona izan hemendik kanpo. Irudi on horri errentagarritasun handiagoa atera behar diogu eta aurten, esaterako, etxe babesle gehiago izango ditugu.

Aurtengo edizioak hainbat berritasun izango ditu. Zeintzuk izango dira aipagarrienak?

Batetik, Zinemaldia Plaza deitu dioguna. Kursaalak 1.100 metro koadroko gela handi bat dauka, eta gela handi hori ez da askorik erabiltzen, aurkezpen ekitaldiatarako eta horrelakoetarako baino ez. Bestalde, Okendo plazan aurten ezin izango dugu karparik ipini, Victoria Eugenia antzokian obrak egiten hasiko direlako aurki. Hortaz, Kursaalera gela handi hori erabiltzea erabaki dugu, eta hainbat enpresaren babes eta laguntza jaso dugu. Esaterako, Cineclassics enpresak erakusketa antolatuko du zinemako zenbait objekturakin. Martin Berasategik, berriz, kafetegia ipini du, Kutzak sarean nabigatzeko ordenagailu bereziak jarri ditu, Mercedes etxeak auto eder bat eman digu eta auto hori zozketatu egingo dugu... Oro har, gune berria zabaldu nahi izan diegu herritarrei, bereziki, oso zinemasale ez direnei.

Helburua, hortaz, Zinemaldia herriari zabaltzea da...

Bai, Zinemaldia oso garrantzitsua da, batez ere, zinemasaleendako. Baina kontuan izan behar dugu erakunde publikoek ordaintzen dutela Zinemaldia eta herritar gehienek ez dutela Zinemaldian parte hartzen. Azken batean, uste dut Zinemaldia era askotara bizi daitekeela.

Guggenheim museoan, lehenengo, eta Zinemaldian, orain. Non gusturen?

Bietan ondo. Zorionez, bietan oso lantalde onak izan ditut, jatorrak eta langileak. Bestalde, esan behar dut zinema asko gustatu izan zaidala betidanik. ETBn nengoela ere, neu nintzen zinema programazioaren arduraduna. Gainera, Olaziregik deitu zidanean, Guggenheimerako prestatutako plan estrategikoa amaitzear zegoen eta hurrengo lau urteetarako plana prestatzen ari ginen. Hortaz, une egokia iruditu zitzaidan lanez aldatzeko.

Zenbat urte eman zenituen Guggenheim museoan?

Lau urte. Zabaldu aurretik hasi eta izaneko urte amaierara arte. Museoa zabaldu eta hiru hilabetera, lehenengo plan estrategikoak ez zuen ezertarako balio izan, aurrez ikusitakoa gaintu egin genuen-eta. Batean, 12.000 museoko-lagun genituen. Horrek konpromiso asko hartzera, hau da, egunetik egunera egitasmo berriak abiatzera, behartu gintuen. Kontuan izan behar da ez geneukala erreferentziarik. Abiatu genuen babes edo laguntza programaren modurik, esaterako, ez zegoen Europa osoan. Gero, gure esperientzia beste leku batzuetan erabili dute. Gure kudeatzeko modua erdugarria izan da beste museo batzuetan.

Eta eraikina, zein duzu gustukoago?

Minimalismoa asko gustatzen zait eta, horregatik, kontzeptualki Kursaal gehiago gustatzen zait. Hala ere, Ghery-ren eraikina oso organikoa eta maitagarria da. Askoz errazagoa da Guggenheim maitatzea Kursaal baino. Arazoa da Donostia oso kontserbadorea dela eta eztabaida asko egon da Moneo-ren eraikinaren inguruan. Bilbon errazago onartzen dituzte gauza berritzaileak.

Zinemasalea zarela aipatu duzu. Zein film mota duzu gustuko?

Denetarikoak, egoeraren arabera, era batekoak edo besteak. Esaterako, aurtengo Zinemaldian Coppola-ren *Apocalypse Now* film ezagunaren bertsio berria estreinatuko dugu Anoetako belodromoan. Eta gogoratzen dut lehenengo aldiz estreinatutako zinean erabat txundituta geratu nintzela. *Mary Poppins* edo *Marcelino pan y vino* ere asko gustatzen zaizkit, bi adibide baino ez jartzearen. Azken film hori bospasei urte nituela ikusi nuen lehenengo aldiz Mondragoeko Ideal zineman. Orduan, peze-ta bat kostatzen zen zinemako sarrera, baina emanaldia baino ordubete lehenago joaten nintzen aulkiak jartzera eta ordaindu barik ikusten nuen filma. Gero, sarreraren aurreztutakoa gaztina erreak erosteko geratzen zitzaidan.

Zelako pelikulak erakutsiko dira Zinemaldian?

ZINEMALDIA HERRIARI ZABALDU

“Helburua da Zinemaldia herriari zabaltzea, kontuan izan behar dugulako erakunde publikoek ordaintzen dutela Zinemaldia eta gehienek ez dutela parte hartzen”

KURSAAL


“Donostia oso kontserbadorea da eta eztabaida asko egon da Moneo-ren eraikinaren gainean. Bilbon errazago onartzen dituzte gauza berritzaileak”


FILMEN GARRANTZIA

“Publikoari garrantzi handia ematen diogu guk. Cannes eta Veneziako jaialdietan ez da horrenbeste jende joaten filmak ikustera”

AISSIALDIRAKO AZPIEGITURAK

“Lanari garrantzi handia ematen diogu eta produzitzen onak gara Debagoienean. Baina, aisialdiari ez diogu horrenbestekoa ematen. Uste dut hausnarketa egin beharra dagoela”





EUSKALDUNON EGUNKARIA

Askotariko filmak aurki daitezke. Egitarau ofizialean, esaterako, Estatu Batuetako, Hego Amerikako, Indiako, Txinako..., toki askotako filmak ditugu. Euskaldunik ez dago; Espainiakoak, oster, bi: *Juana la loca* eta *Buñuel y la mesa del rey Salomon*.

Beste zinemaldi ospetsuen ondoan, hau da, Cannes edo Veneziako zinemaldien ondoan, zer mailatan dago Donostiakoa?

Hirurak lehen mailakoak dira, baina guk bi arazo ditugu besteen aldean. Batetik, aurrekontu txikiagoa daukagula eta, bestetik, Cannes eta Veneziako jaialdiak egutegian hobeto kokatuta daudela. Bestalde, Donostiako Zinemaldia oso zorrotza da filmak aukeratzeko orduan. Esaterako, estreinatutako filmik ez dugu onartzen sail ofizialean. Alde horretatik, esan dezakegu besteak komertzialagoak direla. Horrez gain, publikoari garrantzi handiagoa ematen diogu guk. Cannes eta Veneziako jaialdietan ez da horrenbeste jende joaten filmak ikustera. Hemen bai. Bestalde, 400 metro koadroko zinema-pantaila eta 3.000 lagunendako aretoa ez dago inon ere, Belodromoan bakarrik.

Zeintzuk dira Zinemaldiaren babesle nagusiak?

870 milioiko aurrekontua du Zinemaldiak. %60 diru publikoa da. Lau bazkide nagusi ditu Donostiako Zinemaldiak: Eusko jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa, Donostiako Udala eta ELICA edo Kultura Ministerioa Zinema Zuzendaritzaren bitartez. Bakoitzak %15 jartzen du. Gainerako %40 diru pribatua da. Geroago eta publizitate eta babesle pribatu gehiago ditu Zinemaldiak. Egia da, era berean, urtetik urtera garestiagoa dela Zinemaldia antolatzea.

Zinemaldian, zer da garestiena?

Produkzioak hartzen du aurrekontuaren zatirik handiena: zinema aretoak, bulegoak, kartelak, hesiak... Bestalde, 300 lagun ari dira zuzenean Zinemaldirako lanean. Bidaiak eta hotelak ere garestiak dira. Donostia saria ematen diegunei ordaindu

egiten dizkiegu bidaia eta hotela. Gainerakoei, berriz, hau da, zinema produktore, zuzendari edo aktoreei, egonaldia bakarrik.

Eta zinema jaialdi batean zer da garrantzitsuena: filmak, zinema izarrak, xarma...?

Zinema. Hor ez dago dudarik. Gero, publikoa eta, azkenik, izarrak eta gainerako guztia. Ikusleak oso garrantzitsuak dira guretako, horregatik, besteak beste, azken hiru urteotan ez da sarreraren prezioa igo.

Hala ere, zinema izarrak ez badator hankamotz geratzen da Zinemaldia.

Bai, hori hala da eta horregatik gabilta buru-belarri lanean. Komunikabideek garrantzi handia ematen diote kontu horri.

Euskal zinemagintzarik bada?

Ez. Euskaldunek egindako zinema bai, baina industria propiorik ez daukagu. Uste dut hausnarketa estrategikoa egin behar genukeela, baina horretarako denbora behar da. Hortaz, lehenbizi, pentsatzen jarri behar gara: zer egin, zelan egin, zertarako..., ardura eta neurri batzuk hartu eta aurrera. Hori egin daiteke, baina serio hartu behar da kontua. Euskaraz sortu behar den? Ondo, hizkuntza garrantzitsua da guretako, baina inportanteena zinema bera da. Euskaraz sortzen ez badugu ere, bikoiztuko dugu.

Lanagatik-eta, batetik bestera ibiltzea egokitu zaizu: Londres, New York, Bilbao, Donostia... Herrira joaten zara?

Bai, sarri. Lagunak-eta han ditut eta gustatzen zait eurekin egotea.

Eta zelan ikusten dituzu Mondragoe eta Debagoiena?

Aisialdirako guneak behar ditugu. Zinema ikustera eta erosketak egitera Gasteizera edo beste hiriburuetara joan behar bagara, ez gabilta ondo. Horregatik, uste dut hausnarketa egin behar dugula. Lanari garrantzi handia ematen diogu eta produzitzen oso onak gara Debagoiengan. Baina aisialdiari ez diogu garrantzirik ematen. Jendeak zerbitzu egokiak behar ditu jaigunetan kanpora joan ez daitezen. Baina uste dut hori ez dela nire ardura.

“EEBBn gertatutakoak eragin handia izan du Zinemaldian”

Aurtengo edizioak zuzendaritza talde berria du. Diego Galanen ostean, Mikel Olaziregiri eta zuri zeuri heldu zaizue ordua. Horrek ez dizue ardura handiagoa ematen?


Bai, erronka handiagoa da guretako eta ez dakigu jendeak eta komunikabideek zelan baloratuko duten gure lana. Egia esatearren, Diego Galanek hasitako ildo beretik jarraitzen du Zinemaldiak, besteak beste, madrill-

darrak Zuzendaritza batzordeko kide izaten jarraitzen duelako. Baina zinemaz ari gara eta filmak gustuko izan ditzakezu edo ez. Bestalde, Estatu Batuetan gertatutakoak eragin handia izan du Zinemaldian. Esaterako, Glenn Close ez da etorriko, orain dela gutxi ziurtatu digutenez.

Benetan zorte txarra izan duzuela esan daiteke, hain justu, Donostia Saria jaso behar zuten Paco Rabal eta Julie

Andrews ez direlako Donostian izango.

Bai, hala da. Paco Rabal zena omenduko dugu eta Donostia saria haren seme Benitok jasoko du. Bestalde, Julie Andrews ez denez etorriko, datorren urtean emango diogu saria. Eta Julie Andrewsen ordez, Warren Beatty-ri ere emango diogu aurten Donostia Saria. Baina bai, egia esaten badizut, kalte handia egin digu Estatu Batuetan gertatutakoak.



EUSKALDUNON EGUNKARIA

Kenci Arrasate taldeak zapatuan hasiko du denboraldia Siglo XXI taldearen aurka

Iker Zubiriak hamaika jokalaria izango ditu denboraldiari aurre egiteko

Arrasateko saskibalo taldeak zapatuan hasiko duen denboraldiari aurre egiteko aurpegi berriak baditu ere, oro har, aurreko urtean izandako taldeari eutsiko dio aurten. Aldaketa nabarmenena aulkian izango da, izan ere, Lander Errastik denboraldia amaitzean taldea utziko zuela iragarri zuen, eta haren ordeiz Iker Zubiria oñatiarra izango da taldearen arduraduna. Horrez gain, Danel Aias-tuik eta guztion gogoan dagoen Eugenio Ayalak ere ez dute Kenci Arrasateko elastikoa jantziko. Aurpegi berriak ere ikusi ahal izango ditugu Iturripen: Iraitz Elortza arrasatearra, Gorka Zurutuza oñatiarra eta Iñigo Ziarsolo bergararra Arrasateko taldean izango dira aurten.

Kenci Arrasateko Errioxa eta Euskal Herria batzen dituen lehen mailan jokatu du, eta maila horretan hiru multzo daude. Multzo bakoitza zortzi taldek osatzen dute, eta lehenengo aldia amaitzen denean, multzo bakoitzeko lehenengo lau taldeek EBA mailara igotzeko ligaxka jokatuko dute. Horrenbestez, igoera fase horrek hamabi talde izango ditu, eta Iker Zubiriaren esanetan, Arrasateko taldeak gogotik egin beharko du lan hamabi horien artean sailkatzeko.

Entrenatzaile oñatiarraren ustez, partiduz partidu joatea da zentzudunena, eta denboraldia hasi aurretik helburuei buelta larregirik ez ematea. Denboraldiko lehenengo azterketa ez da bate-re erraza izango, izan ere, zapa-



Kenci Arrasateko jokalaria ilusioz eta entrenatzaile berriaz ekingo diote aurtengo denboraldiari

XABI URZELAI

tuan, Pais Vasco Siglo XXI taldea izango dute aurrez aurre. Taldea oso gaztea bada ere, Gipuzkoako selekzio bat da, eta haiek mendean hartzea ez da erraza izango. Horrez gain, beste multzoetan ere talde sendoak daude: besteak beste, Errioxako Caja Rioja taldea edo Deustuko Lasalle taldea.


TALDE OSOA

Arrasateko taldeak gaztetasu-

na eta esperientzia uztartzen ditu. Jokalari gazteenak 20 urte baino ez ditu, eta beterranoenak 32, hortaz, konbinazio egokia daukan taldea da. Jagoba Gamarra, Iraitz Elortza, Iker Errasti eta Gorka Quintanak hegalean jokatuko dute. Eskolta moduan bi gazte arituko dira: Jokin Lazpiur 21 urteko arrasatearra eta Iñigo Ziarsolo 20 urtetako bergararra, hain zuzen ere. Azke-

nik, pibot postuan Mikel Pagaldai, Ander Mallabiabarrena, Jon Basurko, eta Eneko Gorostidi arituko dira. Horrez gain, bai gazte mailako taldeak baita 23 urtez azpiko taldeak ere, jende gaztea talde nagusira igotzen joango dira poliki-poliki, horrela, datozen urteetarako harrobia ere lantzeko.

XABI URZELAI



Markel Irizar Nazioarteko Sari Nagusian

Markel Irizarrek denboraldia bikain amaitzeko aukera izango du oraingo asteburuan. Txirrindulari oñatiarrak zapatuan, hilaren 22an, Frantziako Saint Romain de Colbosc herrian jokatuko den Nazioarteko Sari Nagusian parte hartuko du. Emaizta ona lortuz gero, aukera asko izango ditu urriaren 9an Lisboan izango den Munduko Txapelketan parte hartzeko. Erlojupekoa zapatuan izango da, eta zazpi estatuko hogeita hamar txirrindularirekin neurtu beharko ditu indarrak. Probak 37 kilometro izango ditu, eta nahiko laua da. Lasterketan lehen aldiz parte hartuko duenez, zaila da ezer iragartzea. Markelen jarraitzaileak autobusez joatekoak dira Frantziara gaur, egubakoitza, 21:00etan. /X.U.

Kirolabur

ESKALADA/ARRASATE

Oraingo asteburuan, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak eta Besaide Mendi Elkartek haitz eskalada ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa hastapen mailakoa izango da, eta bi ikasleko irakasle bategongo da. Ikastaro horretan, besteak beste, laguna ondo tinkatzen, poleako teknika erabiltzen eta rapelatzen ikasiko dute.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Ibarreko futbol taldeek beste jardunaldi bat izango dute oraingo asteburuan, baina batzuetarako, Mondrarendako kasu, denboraldi hasiera izango da. Mondrak Zestoaren aurka jokatuko du. Preferente mailan, Bergarak Mutrikuren aurka neurtuko ditu indarrak. Aloña Mendidik Elgoibar taldearen bisita izango du, eta UDAK Irún 1902 taldea izango du aurrez aurre. Bestalde, Antzuolak etxean jokatuko du Ikasberri talde azpeitiarraren kontra.

AUTOAK/A.ZABALETA

Urrakiko igoera arriskutsua bezain ikusgarria izan zen. Entrenamenduetan auto bat baino gehiago errepidetik irten zen, irabazteko gogoaren erakusle, eta lasterketan istripuren bat edo beste ere izan zen. Beste behin, Aitor Zabaletak, Lola barketarekin, nagusitasuna erakutsi eta proba eskuratu zuen.


OÑATI/ZIKLISMOA

Zapatu goizean, afizionatu mailako Oñatiko XIV. Saria jokatuko da, eta lasterketa goizeko hamarretan hasiko da. Ibilbidea: Oñatin hasi eta Udana igo beharko dute, gero, Legazpi eta Zumarragatik bueltan deskarga jaitsi beharko dute; Bergaratik San Prudentziara eta handik Oñatira. Itzuli hori hiru bider egin beharko dute txirrindulariek.

Kurtsoak doan
Langabeentzat

- INFORMÁTICA
- ETA INTERNET
- IRAUPENA 25 ORDU
- PLAZA MUGATUAK

Europako gizarte fondoak eta INEMek aldi berean finantzatuta



Informazioa:

AKADEMIA
BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondrago
Tel.: 943 79 35 33 / 943 79 32 16 • Fax: 943 79 06 20
E-mail: bastida@bastida.es

Podiuma

Mikel Larrañaga | EIBAR B TALDEKO JOKALARIA |

Mikel Larrañaga antzuolarrak (30 urte) bosgarren denboraldia beteko du aurten Eibar B futbol taldean. "Maki" preferente mailan hasi zen eibartarrekin eta hasieratik maila ona azaldu zuen. Horrela, Periko Alonsok lehen talderako deitu zuen behin 1999-2000 denboraldian. Jabier Mandiolarren taldean jokalaria garrantzitsua izan da beti. Eibarrek ez du liga hasiera onik izan: lehenbiziko bi partiduak huts eta huts berdindu ondoren, domekan 3-0 galdu zuten Espanyol B taldearen aurka, Bartzelonan.



Mikel Larrañaga Eibar B taldeko bigarren kapitaina du.

"Eibar B taldeak etorkizunaren aldeko apustua egin du eta lehenbiziko aldiz Euskal Herritik kanpoko jokalariai ekarri ditu"

"Mandiola entrenatzaileak niregan konfiantza izan du hasieratik, baina laster esango dit poliki-poliki gazteagoi tokia uzten joateko"

Hiru partiduetan ez duzue golik egin.

Domekan, Espanyol B taldearen kontra, normala izan zen golik ez egitea, hiru aldiz bakarrik heldu baikin euren atera. Etxeko partiduan, aldiz, Alfaroren kontra, aukera asko izan genuen, baina, antza denez, punteria findu barik daukagu oraindik. Aukerak baldin baditugu ez dago larritzeko arrazoirik, golak

helduko dira.

Mandiolarekin hasierako hamaikakoan jokatuz beti.

Bai, taldeko beteranoe-tako bat naiz eta entrenatzaileak niregan konfiantza izan du hasieratik. Aurten lehen hiru partiduetan ere jokatu dut, defentsaren ezkerrean beste jokalaririk ez zegoelako, eta esperientziadun jokalariai taldeari ondo datoz

kiolako. Hala ere, entrenatzaileak laster esango dit poliki-poliki gazteagoi lekua uzten joateko.

2.A mailan jokatzeko itxaropenik baduzu?

Oso zaila da hori gertatzea. Periko Alonsorekin aukera izan nuen, baina araudia ezberdina zen orduan. Gaur egun, 30 urtetik gorakook talde nagusiarekin jokatzeko fitxa beharrezkoa dugu, eta 23 urtetik azpikoek, berriz, 10 partidu joki ditzakete talde handiko fitxa egin barik. Hortaz, logikoagoa izango litzateke, jokarien premian egotekotan, gazteei deitzea.

Talde nagusiak ere hainbat lagun fitxatu ditu aurten. Harrobiari behar besteko arreta eskaintzen zaio?

2.A maila ez da probak egiteko kategoria eta gure eta euren arteko distantzia txikitzen badoa ere, normala da esperientziadun jokalariai ekartzea, aurten Realetik ekarri dituztenak, esaterako. Alde horretatik, harrobiko jokariei zail daukate lehen taldera igotzea, jokalaria beteranoak eta esperientziadunak aurretik dituztelako.

Zubillagako suhiltzaile izanda, zelan tartekatzen dituzu lana eta futbola?

Aurten, gogorra egingo zait, seguruenik 11 bidaiara bezperan egingo ditugulako. Joan den domekan, eguerdian jokatu genuen Bartzelonan, gauerdian iritsi nintzen etxera, eta astelehenean 06:00etan hasten nintzen lanean. Orain arte, zortea izan dut lankideak nirekin oso ondo portatu direlako eta Eibarko zuzendaritzak ere erraztasun guztiak eman dizkidalako.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Felix Arriaran Pilotaria



Felix Arriaran, batez ere, binaka aritu zen, aurrelari.

Arriaran anaietatik zaharrena da.


Mondragones izan zen bere maisua.

Profesionaletan jokatu zuen 30 urtera arte.

Arriaran anaietatik zaharrena da Felix. Jose eta Pako ere pilotariak izan ziren eta Juanito, aldiz, futbolaria. Felixen hitzetan, "orduan ez zegoen gaurko eskaintza eta mutiko guztiak ibiltzen ginen pilotan, futbolean edo txirrindularitzan". Herriko txapelketetan jokatu ondoren, Mondragonesi Donostian egin zioten omenaldian parte hartu zuen, 16 urte zituela: "Lehen aldia zen herritik kanpo jokatzeko nuela eta, Groseko frontoian, Eugenio Bolinagak eta biok erraz irabazi genien Txikito de Iraeta eta Onaindia pilotari handien anaiei". Hasieran, atzean jokatzeko proposatu zion; "Indarra baino nerbioa nuen eta pisu txikia, 65 kilo inguru". Hemeretzi urterekin lehenbiziko kontratua sinatu zuen: "Hasieran, partiduko 15 duro ordaintzen zidaten. Orduan ez zegoen pilotatik bizi zenik, eta ni Cerrajeran nehbilen lanean, 14 urte neuzkanetik. Behin baino gehiagotan domekan 12:30eko trenean Mungia joan, partidua jokatu, eta hurrengo egunean bueltatu eta zuzenean lantegira joaten nintzen". Felixek umiltasunez aitortzen duenez, "anaiak ni baino pilotari hobeak ziren, eta Jose txapelidun izatera iritsi zen. Nik beso ona baina esku makala nuen, eta eskuko mina kontu txarra izaten da. Frontoian diru asko izaten da jokoan eta ondo ez bazaude, hobe da ez jokatzeko". Hala ere, Juan de Irigoien eta Pakorro pilotako kronistek behin baino gehiagotan goraiatu zuten Felixen jokoa. Profesional izateari utzi ondoren, beste hiruzpalau urtez jokatu zuen, inguruko herrietako pilota jaialdietan, batez ere. Gaur egun, pilotalekuek ez da hainbeste joaten, eta Titin eta Goñi II.a gustatzen zaizkio, batik bat. /E.M.

"Anaiak ni baino pilotari hobeak ziren. Nik beso ona baina esku malaka nuen, eta eskuko mina kontu txarra izaten da"

Felix Arriaran • Arrasate • 1924



Nire Pronostikoa

JOSEAN INARRA / Euskadiko karate selekzioko prestatzaile fisikoa

ez naiz oso futbolzalea, baina pronostikoa ematera gausartuko naiz: Athleticen Valentziaren kontra galduko duela uste dut, valentziarrek oso talde sendoa daukate-eta. Osasunak nekez izango du

Zaragozan punturen bat lortzea, orain arte gauza gutxi azaldu dutelako. Realak aukera ona izan dezake Villarrealen hiru puntuak lortzeko eta Alaves erraz nagusitu dakioko Deporri.

Oraingo astebukaerako partiduak

A/ Athletic	1	Valentzia	2
B/ Zaragoza	2	Osasuna	0
C/ Alaves	3	Deportivo	1
D/ Villarreal	0	Reala	1

Euskara ikasteko hamaika bide omen daude...

aek-n onena



Euskara ikastaroak

Maila guztiak / EGA eta Alfabetatze / Matrikula epea: irailak 24



Akulu aek euskaltegia
Masterreka 13, behea · Bergara
Tel.: 943 76 05 18

Erdu aek euskaltegia
Garibai 14, 3 · Arrasate
Tel.: 943 770 369

Udalaren laguntzaz beka sistema

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko irailaren 21a

Kultura
eta
Aisialdia



Irailaren
21etik 28ra

Uraren bila DOHAINA ALA JAKITURIA?

Afrikako hegoaldean, Historiaurrean bizi ziren gizakiek hainbat margo egin zituzten haitzuloen paretetan. Horietako batzuek, eskuetan haga edo makila bat daramaten pertsoniak irudikatzen dituzte. Egiptoko piramideen eraikuntza garaiko idatzietan edo Biblian bertan ere, hagatxodun gizon horien gaineko berriak daude. Betidanik izan dira, eta gaur ere badaude: ur-bilatzailleak dira, makilen edo penduluen bidez ura aurkitzeko dohaina duten pertsonak. Antzinako jakituria gaur eguneraino iritsi da, belau-naldiz belaualdi, dohain berezia duten lagunen bitartez. Eta Deba-goienean ere badago horrelakorik. LEIRE KORTABARRIA /14



Radiestesia

Ur-bilatzaileak Debagoiengan

Aspaldiko artea, gaur egun ere indarrean

UR-BILATZAILEAK, MAKILAZ URA AURKITZEN DUTENAK, EZ DIRA IRAGANEKO KONTUA, ETA GUREAN ERE BADAGO HORRELAKORIK

Mota bateko edo besteko asmaketa behar duten ekin- tze mesfidantza piztu izan dute, baina ur-bilatzaileak ez dira aztiak, ez eta botere psikoz hornitutako igarleak ere. Baina badute zelabaiteko ahalmen berezia: hagatxo batez baliatuta, ura, eta, kasu batzuetan metalak ere, aurkitzen dituzte.

Mundu osoan, Historiako aro guztietan, izan da ur-bilatzaileen berri. Antzinako ur-bilatzaileak, aztiak edo botere handiz bedeinkatutako pribilegiatuak ziren. Denborak aurrera egin ahala, zientziak gauzak argitzen lagundu du. XX. mende hasieran, adibidez, ikuspegi zientifikotik idatzitako liburuak eta ikerketak argitaratzen hasi ziren. Ur-bilatzaileei izen zientifikoa ere eman zieten: euren jardura radiestesia edo errabdomantzia hitzez ezagutzen hasi zen. Radiestesia hitzak "erradiazioenganako sentibiltate edo sentiberatasuna" esan gura du.

Definizio horrekin bat dator Ana Maria Landa. Debagoiendarra da, Mondragoekoa. Diseinatzailea da izatez, baina ur-bilatzailea izatea da bere bizitzako ametsa eta desioa. Hain gogoko duen jardura hori isil-isilik egiten du. "Herrian jende gutxi daki ur-bilatzailea naizela; ezagunagoa naiz hemendik kanpo", diosku berak.


"Edozeinek egin dezake"

Landarendako, bere ahalmenak ez du aparteko jatorririk. "Energia kontua da", esaten du, "eta edozeinek egin dezake". Zientzialarien esanak modu samurragoan errepikatu baino ez ditu egiten Ana Maria Landak. Jean Charloten adituak tratatu bat idatzi zuen 1940an, eta ordutik ontzat hartu den definizioa proposatu zuen radiestesia edo ur-bilatzaile izateko gaitasuna azaltzeko. Dena dela, zientzialarien artean eztabaidak jarraitu egiten du. Oraingoan, radiestesia parazientziaren munduan sartzen du zientziak, ofizialki behintzat.

Charloten ustez, ur-bilatzaileak, naturaren indarrak eta fluixuak sumatzen dituzte. Naturan dauden indar elektrokoak, indar magnetikoak eta grabitatearen indarrak eragin egiten diote giza gorputzari. Hain zuzen ere, nerbioetan eta muskuluetan eragiten diote. Ur-bilatzaileak modu berezian sumatzen ditu indar horiek, eta haga edo makila bat erabiltzen du bere gorputzaren erreakzioak handitzeko. Hau da, hagatxoa edo makila gorputzaren "anplifikadorea" izango litzateke.

Aita-amengandik jaso

Radiestesista askok, Ana Maria Landak dioten bezala, eurek egi-



Burdinezko hagatxo bat erabiltzen du Ana Maria Landa arrasatearrak ura bilatzeko.

LEIRE KORTABARRIA

ten dutena edozeinek egin dezakeela baieztatzen dute; baina bada go zerbait misteriozua ur-bilatzaileen inguruan. Debagoiendarrak izan dituen esperientzietan, berak baino ez beste inork ez zuen ura non zegoen asmatu. Berari ere familiaritate datorkio ahalmen hori, izan

ere, osabak ere gaitasun berbera dauka, eta baita bere senitarteko batzuek ere. Ana Maria Landaren kasua aintzakotzat hartzen badugu, badirudi, gizadian ondo errotutako tradizio eta kultura adierazpen guztiak bezala, aita-amengandik jasotzen den zerbait dela

ur-bilatzaile izatearen dohaina edo ahalmena.

Mota askotako ur-bilatzaileak daude. Mondragoetarrak ura aurkitzen du, baina ez hori bakarrik: zenbat metroko sakoneran dagoen ere igartzen du. Metodologia berak jakinarazi digu: "Lur eremu

jakin batean, eginda dagoen putzu baten ondoan zutik gelditzen naiz. Orduan, urratsak ematen hasten naiz, hagatxoa eskuetan dudala. Urrats bakoitza sakonera metro bat da. Horrela, hainbat gunetan aprobak egiten ditut, harik eta hagatxoa gorantz mugitzen hasi arte. Zenbat eta biziago mugitu, orduan eta indartsuagoa da ur-emia", diosku Ana Maria. Horrek harri-dura sortzen dionari, jakin beza badaudela mapa soil batekin uraren kokapena asmatzen duten bilatzaileak; edo galdutako pertsonak aurki ditzaketenak.

Beste erabilpen batzuk

Askotan, naturaren indarra sumatzeko duten energia, beste gauza batzuetarako ere erabiltzen dute bilatzaileak. Ana Maria, adibidez, honakoa dio: "Bateren batek zenbat ume izan dituen eta izango dituen asmatzen dut. Gainera, gariak eta odoluzkiak ere modu naturalean kentzen ditut".

Tradizioa, praktika behar duen diziplina, antzinatik jaso dugun arte mota edo oraindik ondo ulertzen ez dugun, baina zientifikoki azal daitekeen naturako energien adierazpena izan, badirudi oraindik ur-bilatzaileen beharra izaten dugula, nahiz eta eurek abilezia hori isil-isilpean gorde.

LEIRE KORTABARRIA

ANA MARIA LANDA / UR-BILATZAILEA

"Jendeari laguntzeko erabiltzen dut nire gaitasuna; ur-bilatzaile izateak izugarritzko poza ematen dit"

Ana Maria Landa arrasatearra ur-bilatzailea dugu; hau da, makilatxo edo burdin hagatxo baten bidez, ura non dagoen asmatzen du. Pozarren ibiltzen da Landa putzu bila, eta are pozago, oraindik, bere ahaleginek ondorio onuragarriak dituztenean.

Zelan konturatu zinen ur-bilatzailea zirela?

Hamalau urte nituela, kasualitatez, konturatu nintzen. Osabak lur eremu bat zeukan, eta bilatzaile bat etorri zen ur bila. Gerora, osabak egin zuen aproba, eta azkenik, neuk. Bai eta ura non zegoen asmatu ere!

Zein izan da zure esperientzia orain arte?

Ahalmen hori bertan behera utzi



nuen, orain dela bi urte berreskuratzea erabaki nuen arte. Bederatzi saiakera egin ditut, eta guzti-guztietan asmatu dut non zegoen ura. Nafarroan, Kordoban eta

Errioxan egin dut lan, batik bat. Plantazioak zituen jendeari ura aurkitzen lagundu diot. Eurek asko estimatzen naute eta giro horretan nahiko ezaguna naiz.

Zer esaten dizute ingurukoek?

Denetarik entzuten dut: batzuek sinetsi egiten didate; beste batzuek, barre. Logika erabiliz gero, ura non dagoen edozeinek asma dezakeela esaten didate; izan ere, ibai bat baldin badago, seguruena, inguruan lurpeko korronteren bat izango da. Baina nik ez dut logika erabiltzen, eta horrela aurkitu izan ditut putzu guztiak.

Zertarako erabili gura duzu zure gaitasuna?

Jendeari laguntzeko. Lan honek izugarritzko poza ematen dit. Izatez, diseinatzailea naiz, baina gus-

tura utziko nuke alde batera lan hori, ur-bilatzailea izateko. Ura aurkitzen dudanean, hotzikarak eta pozt handia sentitzen dut. Bizipoza ematen dit. Zoritxarrez, gaur egun ez dut horretatik bizitzeko aukerarik. Pena dut lan hori ez delako behar bezala errekonozitzen; jendeak sinetsiko balit, batez ere nekazariak edo landaketak dituztenek, behar bada dirua aurreztuko lukete, berehala esango niekeelako non eta zein sakonerara egin putzua.

Etorkizunerako zein asmo dituzu?

Iberdrolak Bolivian, La Paz-en, abian jarriko duen proiektu baten parte hartu gura dut. Ura erabiltzeko dute energia sortzeko; baina nik aurrez lagundu gura diet, ura non dagoen esanez. /L.K.

Argitalpenak

'Zura: arotzak eta etxegileak' liburua

Arotz eta etxegileen gaineko liburua

BERGARA ALDEKO BERBAK ETA LANGINTZA ZAHARRAK BILDUMAKO HIRUGARREN ATALA KALEAN

Joan den egubakoitzean, San Martin Agirre jaien atarian, Zura: arotzak eta etxegileak izenburuko liburua aurkeztu zuten Bergarako Udaltxean. Anaje Narbaiza bergararrak idatzi du liburua eta Bergarako Udalak kaleratu du.

Argitaratu berri den liburua Bergarako Udalaren eta, dagoeneko desagertuta dagoen, Bergarako UNEDeko Euskal Kultura Departamentuaren lankidetzaz hitzarmenaren hirugarren fruitua da. Izan ere, Bergara aldeko lexikoa eta langintza zaharrak bildumako hirugarren atala da esku artean dugun liburua. Bilduma horren bitartez, galduta edo galtzear zeuden lanbideetako lexikoa, esamoldeak eta jakintzak jaso nahi izan dituzte. Bilduma horretako lehenengo hirur atalak kalean dira. Hain justu, honako hauek: *Linua, ehuna eta artilea*, Jasone Isazelaiak egina eta 1997an argitaratua; *Txon-dorrrak, karobiak eta elurzuloak*, Amaia Olañetak eta Argiñe Urkiok egindakoa eta 1998an argitaratua; eta zurari buruzko hirugarren hau. Bilduma osatzeko geratzen dena, *Burdina: errementari eta perratzaileak*, Iñaki Aranak eta Lide Oregik egiten arihardute. Bilduma osoaren zuzendaria Juan Martin Elexpuru da, eta aholkulari taldean Xarles Videgain euskaltzain urgazlea eta Miren Azkarate euskaltzaina eta Kultura sailburua aritu dira.

Modu didaktikoan antolatuta

Bildumako liburuak modu didaktikoan antolatuta daude, koloretako argazki askoz hornituta dau-



Goian, liburuaren aurkezpenean, joan zen egubakoitzean, ateratako argazkia. Behean, liburuaren azala. EDU MENDIBIL



Anaje Narbaiza

de eta itxura zein diseinu dotorekoak dira. Kaleratu berri den zurari buruzko honek 184 orrialde dauzka eta lau zati nagusitan banatuta dago: lehenengoan, sarrera historikoa egin du egileak: gizakia, basoak eta zuhaitzak historian zehar; suteak, basoen babesa, zurginak, basolanak eta garraioan. Bigarrena, etxegintza gainekoa da: lehengaia, egur motak, etxearen egiturak, base-riaren tokiak, etxegintzako terminologia Euskal Herrian eta zuraren inguruko esaerak eta atsoitzak. Hirugarrenean, zura lantzeko teknikak azaltzen dira: arbola aukeratzea, botatzea, moldurak

ateratzea, muntatzea, jostea, kolatzea... Laugarrenean, batetik, transkripzioak, hau da, gaiari buruzko azalpenak eman dituzten lekukoei egindako grabazioen transkripzioak bildu ditu egileak, eta, bestetik, fitxa lexikalak edo jasotako hiztegia.

Liburuak, azken orrialdeetan, Alberto Santana UNEDeko irakaslearen hitzaurrea eta hiztegia ere jasotzen ditu. Bergarako kultur etxean eta, apurka-apurka, hainbat liburu dendatan eskuratu ahal izango da liburua. 1.500 pezetan jarri dute salgai.

ENKO AZKARATE

Nire aukera

Cris Hernandez Arrasateko Diskopolis dendako arduraduna

Armonía izeneko disko bikoitza gomendatzen dut. Azkenaldian oso maiz entzuten dudana



diskoa da. Musika lasaigarri moduan saltzen dute, baina, egia esatearren, mundu osoko doinu etnikoak dira abesti gehienak: Japoniakoak, Irlandakoak, doinu arabiarak... eta horregatik dut hain gustuko. Hogeita hamar bat abesti dira, eta guztiak atsegin ditut, baina bat nabarmen-tzekotan, *I Muvriniren Un ti ne scurda* izeneko azpimarratuko nuke. Arabiar estilokoa da, eta hori entzuten dudanean, begiak itxita badituzte, iruditzen zait horrelako lurralde baten nagoela.

'ARMONIA' Askoren artean

armonía
más de dos horas de música de relajación

LEIRE KORTABARRIA

Kaleratu berriak

San Arantzabal

LIBURUA | Nobela



INDIA
HARRIGARRIA
Gotzon Garate
Elkar
227 orrialde

Hindi hizkuntza ikasteko asmoz joan zen Gotzon Garate Indiara: Ahmedabad, Ranchi, Calcutta, Bonbai, New Delhi, Varanasi eta beste hainbat bazter bisitatu zituen. Baina, batez ere, jendea, jendea, jendea: talde handiak, samalda izugarriak nonahi pilatuta; gizarte zabal, ñabar eta askotariko horren barruan, ordea, pertsonak daude: hezur-haragizko gizon-emakumeak, beren poz eta atsekabeekin, beren ohitura eta beren gorabeherekin. Jendearen istorio eta bitxikeriez osatutako liburua.

LIBURUA | Ipuinak



BERO HEZEAK
Txalaparta
228 orrialde
23 ipuin

Basuriko Euskarabilla Elkarteak antolatutako ipuin erotikoen lehiaketan irabazle izandako lana da Bero Hezeak. Ez da ipuin bakarra, lehiaketara aurkeztu ziren berrehun lan ingurutik onentxoena daude aukeratuta, hogeita hiru, hain zuzen ere. Sariak jaso dituztenak eta kalitatez onak diren saritu bariokoak ere badira tartean. Sexu-joerak, fantasiak, kitzikagaiak eta morboa ematen diguten egoerak irakurriko ditugu liburu honetan. Irakurtzetik sentitzea, irakurlearen esku.

DISKOA | Triki



KEPA JUNKERA
Maren
EMI
13 kantu

Kepa Junkerak Euskal Herriko mugetatik haratago egin du jauzi. Orain, EMI disko etxeak argitaratu dio azkenengo lana eta aurrekoaren bidetik oso arrakastatsua izango ei da. Aurrekoaren ildotik kolaboratzaile pila bat izan ditu ondoan Junkerak, horien artean dira, batzuk aipatze-arren, Natxo de Felipe, Antxon Latxa, Tontxu, Gilles Chabenat, Rostom Khachikian, Ibon Koteron, Olga Cerpa, Javier eta Jose Tejedor, Glen Vélez... Zerrenda luzea. Diseinu zaindua digi-pack formatuan.

Iraila: 21-28

Edu Mendibil / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

ELORRIO

> **Tanttaka** antzerki taldearen "Hor dago koxka" antzezlanaren egubakoitzean, hilak 21, Arriola aretoan, 22:30ean.
> **Julio Perugorria producciones** taldearen *Los días felices* antzezlaren estreinaldia hilaren 28an Arriola aretoan, 22:30ean.

Musika

BERGARA

> **The Demonics eta Surfing Bloody Marys** datorren egubakoitzean, hilak 28, Jam aretoan, 22:00etan.

OÑATI

> **Mikel Urdangarin** egubakoitzean, hilak 21, Oñatiko pilotalekuan, 22:30ean.

Erakusketak

ARETXABALETA

> **Saharar herriaren alde** elkartasun erakustaldia egubakoitzean eta zapatuan, hilak 21 eta 22, Murruxoren egoitzan.

ARRASATE

> **Juan Gonzalez Cuestaren** pintura erakusketa Harresi aretoan (Iturriotz 35) irailaren 30era arte. Aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> **Jose Antonio Laskurainen**

margoak La Caixako bulegoan irailaren bukaerara arte.

> **Marilu Untzuruntzagaren** olio erakusketa Nahikari tabernan.

OÑATI

> **500 urtez frantziskotarrak Arantzazun** izenburuko erakusketa Arantzazuko Santutegian. Goizeko 11:00etatik 19:00ak arte. Astelehenetan itxita.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuri beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

BERGARA

> **Argazki lehiaketa** deitu du San Xope erretratuen elkarteak. Edozeinek parte har dezake, pentsiodunek eta erretratuek izan ezik. Gaia honakoa da: *Nola ikusten dituzu pertsona nagusiak?* Lanak (zuri beltzean edo koloretan) aurkezteko epea irailaren 29an amaituko da. Argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

DEBAGOIENA

> **Kirol materiala euskaraz sortzeko beka**, Deba arroken euskara eta kirol zerbitzuek deituta. XII. aldiaren helburua da hiru arlotako fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzen gainean, oinarrizko soin hezkuntzaren gainean eta xakearen gainean. Beka bakoitzak 500.000 pezetako ordainsaria izango du. Lana egiteko epea bost

hilabetekoa izango da. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

EIBAR

> **Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa.** Nahi duten argazkizale guztiek parte har dezake. Gaia librea izango da eta gehienez hiru argazki zuri beltzean eta beste hiru koloretan aurkeztu ahal izango dira. Koloretako zein zuri beltzeko argazki bildumarik onenak 80.000 pezetako saria jasoko du eta argazki solte oneneko ere sariak izango dira. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da, eta ondoko helbidera bidali beharko dira: Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa. Portalea. Eibarko Udala. Bista Eder 10. 20600 Eibar. Argibide gehiago 943 20 68 45 telefono zenbakian.

ELGOIBAR

> **Komiki lehiaketa.** Elgoibarko Kultura Zerbitzuak eta Kokoe komikarien taldeak komiki lehiaketa antolatu dute. Gura duenak parte har dezake lehiaketan. Komikiek lau orriko luzera izan beharko dute, 18x24 zentimetroko formatuan eta zuri beltzean. Hiru sari nagusi izango dira: 80.000 pezetako lehenengorendako, 60.000 pezetako bigarrenarendako eta 40.000 pezetako hirugarrenarendako. Urriaren 11 arte izango da lanak

aurkezteko epea: Kultura Zerbitzua, Nafarroa plaza 3. 20870 Elgoibar.

ANDOAIN

> **Bidaien eta Mendi Kroniken Lehiaketa** deitu du *Euskaldunon Egunkariak*. Edozeinendako dago zabalik lehiaketa. Testu argitaragabeak, gehienez, 11.000 karaktere izan behar du (orri bi eta erdi alde batetik). Euskarazko idazlanarekin batera 6-8 argazki edo diapositiba aurkeztuko dira. Irabazleak lau lagunendako auto-karabana izango du astebetarako, gura duen lekura joan ahal izateko. Lanak urriaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibideak 943 30 02 22 telefono zenbakian.

LASARTE-ORIA

> **Gazteak eta euskara ikertzeko beka.** Beka horren helburua da Lasarte-Oriako gazteek euskararen gainean dituzten jarreraren diagnostia egitea. Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, eta bekararen zenbatekoa 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro). Proiektua eta gainerako agiriak aurkezteko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 37 60 55 zenbakian.

ZUMAIA

> **Julene Azpeitia XIV. Ipuin Lehiaketa.** Gaia librea izango da eta euskarazko idazlanek gutxie-

nez 12 folio eduki beharko dituzte, idazmakinez idatzita eta bi espaziorekin. Irabazleak 325.000 pezeta eskuratuko ditu eta bigarren saria 125.000 pezetakoa izango da. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatuko da. Argibideak 943 86 50 25 telefono zenbakian.

Ikastaroak

ANTZUOLA

> **Grafologia ikastaroa** Udaletxean urriaren 20an, 27an eta azaroaren 10ean, 17an eta 24an, 10:30etik 12:30era, Irune Ibarraren eskutik. Izena emateko epea urriaren 8an amaitzen da. Argibideak: 943 76 62 46.

ARETXABALETA

> **Oinarrizko taila ikastaroa**, Okila elkarteak antolatuta. Ikastaroa urriaren 1ean hasiko da eta eskolak astelehen, martitzen eta eguaztenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara (60 ordu). Izena ematea Udaletxean, kultura etxean edo Okila elkartearen (943 79 30 71).

ARRASATE

> **Psikogeriatria ikastaroa**, ICTEk antolatuta. Urriaren 1etik 5era, 15:15etik 18:15era. Portaeraren nahasteak adinduegan landuko dira. Honako hauei



MUSIKA

MIKEL URDANGARIN OÑATIN

Kantari zornotzarrak izugarriko arrakasta lortu du azken diskoarekin, *Espilue*, eta gaur, egubakoitza, Oñatin disko horretako kantuak zein aurreko lanetakoak (*Haitzetan* eta *Badira hiru aste*) abestuko ditu. Azken hilabeteotan, kontzertu ugari eman du Urdangarinek, eta entzuleek harrera beroa eskaini izan diote. Zalantza barik, euskal kantagintzako izar nagusietakoa bihurtu da, eta adin guztietako entzuleak erakartzen ditu.

Noiz: egubakoitzean, hilak 21, 22:30ean. **Non:** Zubikoa kiroldegian. **Sarrera:** 1.200 pezeta (1.000 aurrez).

ENERGIA BARRIZTAGARRIXEK 32 orduko Ikastaro Praktike

Noiz:	irailak 29-30 eta urriak 13-14
Nun:	Arrasateko Lanbide Eskolan
Emuliek:	J.M "Super" (Energia barriztagarrietan ikasixe) Iñaki Urkia (Arkitektue) Fernando Bengoetxea (Instaladorie Ekain-Taldea)
Matrikulie:	3.000 pta
Antolatzailie:	Arrasateko Udala Ingurumeneko Batzordea
Languntzailiek:	Eskoriatzako Museo Eskolie (E.M.E) Mugarik Gabeko Injenieritza (M.G.I)
Izena emuteko:	943 79 97 84 Xabi 636 94 49 88 943 71 54 53

Izena emuteko epei: irailak 24-25 eta 26

Izena emuteko ordena kontutan hartuko da 25 plaza.



ARRASATEKO UDALA

JAIO TAKOAK

- Ganix Suarez Beloki Eskoriatzan, abuztuaren 6an.
- Mikel Arraeta Iñurrategi Eskoriatzan, abuztuaren 26an.
- Ane Kortabarria Perez Bergaran, abuztuaren 29an.
- Ane Azkarate Unamuno Bergaran, irailaren 4an.
- Ainhoa Urzelai Madina Oñatin, irailaren 5ean.
- Julen Dominguez Santiesteban Eskoriatzan, irailaren 6an.
- Bianca Misol Viamonte Arrasaten, irailaren 7an.
- Ane Juaristi Bereziartua Arrasaten, irailaren 9an.
- Leire Barbero Altuna Aretxabaletan, irailaren 9an.
- Aritz Astobiza Balmás Aretxabaletan, irailaren 9an.
- Paula Garcia Frago Bergaran, irailaren 10ean.
- Karmele Egaña Barriola Oñatin, irailaren 10ean.
- Maraia Zumalde Ugartemendia Oñatin, irailaren 10ean.
- Mikel Barrena Sacristan Arrasaten, irailaren 11n.
- Oier Saenz-Azkunaga Uribarri Arrasaten, irailaren 12an.
- Saioa Moiuia Lete Oñatin, irailaren 13an.
- Mart Moiuia Lete Oñatin, irailaren 13an.
- Ana Sanchez Vinagre Oñatin, irailaren 14an.
- Daniel Jara Pacheco Eskoriatzan, irailaren 14an.
- Iker Garcia Okina Aretxabaletan, irailaren 14an.
- Martin Abarrategi Sarrionandia Ramaion, irailaren 15ean.



Oier Saenz-Azkunaga Urbarri mondragoetarra, **Karmele** eta **Aitor** gurasoekin. Oier irailaren 12an jaio zen. Ama Portugaletekoa da eta aita, mondragoetarra.




Leire Barbero Altuna atxalbaltarra eta **Itsaso** ama, eskoriatzarra. Leire irailaren 9an jaio zen. **Jose Ignacio** da aita, atxalbaltarra bera ere.



Aroa Edroso Gutierrez osintxuarra eta **Jesus** aita, bergararra. Aroa irailaren 14an jaio zen. **Isabel** da ama, eta berau ere bergararra da.



Ane Azkarate Unamuno eta **Marilu** ama, bergararrak biak. Ane irailaren 4an jaio zen eta 2,280 kilo pisatu zuen. **Eneko** da aita, bergararra bera ere.




Julen Dominguez Santiesteban eta **Jesus** aita, eskoriatzarrak biak. Julen irailaren 6an jaio zen. Ama, ostera, **Mayende** da, kubarra.



Izaskun Olabe eta **Jose Eguren** elgetarrek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. Duela 25 urte, irailaren 18an, ezkondu ziren Elgetako parrokiari. Bihar, zapatua, meza izango dute Salbadorko ermitan, eta euren senitartekoekin ospatuko dute. Zorionak, bikote, familia guztiaren partetik!



Maria Rosario Lonbide eta **Jose Erdabide** bergararrak 1951ko abuztuaren 14an ezkondu ziren San Pedro parrokiari. Urrezko ezteiak bete dituzte, beraz. Oraingoan ere, meza San Pedron bertan izan zuten, eta bazkaltzera, berriz, Mutrikura joan ziren; hantxe ospatu zuten urteurrena senitartekoekin batera. Zorionak, bikote!



Martin Kortabarria bergararra eta **Isabel Aranburu** uberrarra duela 50 urte ezkondu ziren; 1951ko irailaren 8an, hain justu, Arraten. Joan zen zapatuan urrezko ezteiak ospatu zituzten. Oraingo honetan, baina, Arantzazun izan zuten meza. Mezaren ostean, bazkaria izan zuten urrezko ezteiak ospatzeko. Zorionak, bikote, familiaren partez!

ESKER ONA

Juan Bautista Uribarren Altuna

Arrasaten hil zen 2001eko irailaren 8an, 88 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jabier Bergaretxe Llodio

Arrasaten hil zen 2001eko irailaren 16an.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

3. ADINEKOAK

BADA!!

BIZITZEKO
paraia.



TENERIFE

Irteerak Bilbotik

HOTELA	ERREG.	7 gau	14 gau
** Hotela	MO	51.000	68.500
Acuario**	MO	51.700	71.300
Seguro Sol Apt. 2G	MO	53.900	75.600
Valle Luz Apt. 2G	MO	53.900	75.600
Casa del Sol***	MO	58.500	83.000
Parque Atlanta Apt. 3G	MO	58.500	83.000
Tosca Apt. 3G	MO	61.000	88.300
Eden Trovador***	MO	61.000	88.300
*** Hotela	MO	58.000	82.800
**** Hotela	MO	65.500	101.200
Dania/Magec****/****	MO	65.900	106.500
Troya****	ME	69.600	106.000
Florida****	MO	74.700	124.400

PALMA MALLORCAKOA

Irteerak Bilbotik

HOTELA	ERREG.	7 gau	14 gau
** Hotela	MO	35.800	53.300
Sol Pinos**	MO	38.300	57.900
*** Hotela	MO	43.300	68.500
Olimpo***	MO	45.200	71.800
Playas del Arenal***	MO	46.800	74.800
Tropical Park***	MO	47.800	77.200


*Ura edo ardoa barne

OHARRA: Kontsultatu antzeko eskaintzak azarorako, abendurako, urtarrilerako, otsailerako, martxorako eta apirilerako.



HALCON
VIAJES-BIDAIK
Narekin hobeto!

Eguraldia



ZAPATUA, 22

Lainoak izango dira nagusi egun osoan, eta euria egingo du. Temperatura ez da aldatuko; aldatzekotan, behera egingo du. Haizea hegoaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Zaparradak. Pirinioak: Lainoak eta ostarteak.

DOMEKA, 23

Lainotsua izango dugu domeka ere. Euria egingo du, eta baliteke ekaitza egitea. Haizea hegoaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Egun euritsua. Pirinioak: Zaparradak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

15°C

ILARGIAREN ALDIAK: IRAILA



EGUZKIA: IRAILA 23a



Urkuluko urtegia

Oraingo astean ere, gutxi, baina behera egin du Urkuluko ur mailak. Joan zen astean %79,56 zen; oraingo astean, berriz, %78,07.

%78,1

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan

08:30, 12:00.

Zapatuetan

08:30, 12:00, 19:30.

Domeka eta jaiegunetan

09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK

Table of phone numbers for various services: Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Hies Ekimena, Udaltzaingoak, etc.

OSASUNA / LARRIALDIAK

Table of phone numbers for health services: Orokorra, Antzuola, Gurutz Gorria, Suhiltzaileak, Ertzaintza, etc.

GARRAIOAK

Table of phone numbers for transport services: Eusko Trenbideak, PESA, Taxiak, etc.

Table of phone numbers for Bergara, Eskoriatza, Oñati, RENFE.

DEBAGOIENA

Table of phone numbers for Debagoiena: Mankomunitatea, Abere hiltegia, Mendi nekazaritza, etc.

Table of phone numbers for Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Oñati.

Kultura Etxeak

Table of phone numbers for cultural centers: Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

Udalak

Table of phone numbers for municipalities: Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandeak

DONOSTIA-GASTEIZ

Table of bus routes between Donostia and Gasteiz, showing departure times for Bergara, Arrasate, Eskola P., Aretxabaleta, and Eskoriatza.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

Table of bus routes between Gasteiz, Arrasate, Bergara, Eibar, and Donostia, showing departure times for Gasteiz, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, and Bergara.

DONOSTIA-BILBO

Table of bus routes between Donostia and Bilbo, showing departure times for Donostia, Antzuola, Bergara, Elgeta, and Bergara-Oñati.

BILBO-DONOSTIA

Table of bus routes between Bilbo and Donostia, showing departure times for Bilbo, Elgeta, Bergara, Antzuola, Oñati-Bergara, and Bergara-Oñati.

OÑATI-ARRASATE-BILBO

Table of bus routes between Oñati, Arrasate, and Bilbo, showing departure times for Oñati, Arrasate, Bilbo, Arrasate, and Oñati.

BERGARA-ARRASATE-BILBO

Table of bus routes between Bergara, Arrasate, and Bilbo, showing departure times for Bergara, Arrasate, Bilbo, Arrasate, and Bergara.

BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA

Table of bus routes between Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, and Eskoriatza, showing departure times for Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, and Eskoriatza.

ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR

Table of bus routes between Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, and Eibar, showing departure times for Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, and Eibar.

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑA

Table of bus routes between Bergara, Antzuola, and Iruña, showing departure times for Bergara, Antzuola, and Iruña.

Zozketak

BONOLOTOA LOTERIA PRIMITIBOA

Table of lottery results for BonoLotoa and Loteria Primitiboa, including winning numbers and supplementary numbers.

ONCE

Table of lottery results for Once, including winning numbers and supplementary numbers.

Erakunde hauentzako laguntza





Arrasateko Udala, Aramaioko Udala, Aretxabaletako Udala.

Eskoriatzako Udala, Leintz Gatzagako Udala, Antzuolako Udala.

Hitz geqidunak

Luma		Sindikatu abertzale Pl., barazki mota	Balitz Okada	Suari dario
		Hegazti mota Salbu	Infusio mota Tona	Iodoa
Kaute- glak	Bokala	Errep., fruitu mota Interjekzioa	Potasioa Aterea	Itsas hegaztia
Burgindegi	Deitura	Zezen zikiratua Sodioa	Jardun Segada	
Ernel		Har ezaki Izena		
Hurbila		Biharamuna Uztailaren hasieran		
501		Filipineta-ko irla 1000		Sufrea

Bila-bila 7



Umore giroan

David Peñalver

MEDIKUAREN TRUKUAK

Gizonak medikuari:
- Mediku jauna, zuk bialdutako itsasoko baiñu horreik mesede egin doste.
- Ze ba, osatu egin haiz ala?
- Osatu?, ez, ez. Oin garbixau najagok!

ILLARGIXARI BEGIRA

Mozkor bi:
Urteten die mozkor bi tabernatik eta putzu baten illargixaren erreplejua ikusi dabe. Harrittuta, esan dotse elkarri:
- Hi, hori illargixa dok!
- Bai, hoixe uste juat!
- Eta, orduan, zer ostia egitten juau guk espaziuan?

BARRIKETA XELEBRIA

Juntatu dituk bi lagun eta barriketan hasi dituk:
- Bxxzxs!
- Htzsfrs!
- Etorri da hirugarren bat eta galdetu jotsek:
- Ze barriketa arraro dabi-zue ahuan?
- Atzo gabeko Canal Plus-eko filma komentatzen genden.

TXORIXUA

Etxian, afaldu aurretik, semiak aittari:
- Aitta, txorixua nahi dot!
- Ez, seme, honek pikau egitten jok-eta.
- Orduan, sokatik hartu-ko juat.

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




Zenbat bizilagun zituen Debagoienak 1900ean?

Debagoienak (Aramaio barne) 64.000 bizilagun inguru ditu gaur egun. Asmatuko ote zenuke orain dela 100 urte pasatxo, 1900ean, zenbat ote ziren? (Erreferentziatxo bat: Gipuzkoako populazioa 1900ean oraingoa baino 3,5 aldiz txikiagoa zen)

- 37.570
- 25.853
- 16.340

Erantzun zuzena: 25.853

Soluzioak



S	N	O	Z	V	A	M	A
•	N	O	Z	U	L	U	•
A	E	A	J	E	•	O	K
O	•	L	V	A	Z	V	•
I	R	V	•	N	O	I	Z
A	I	D	I	•	D	I	•
K	•	V	O	K	O	R	H
•	O	K	•	I	•	•	•
I	G	I	E	Z	O	R	V
•	•	E	•	E	•	•	•
E	•	B	E	L	E	•	•
K	B	A	B	A	K	•	•
•	L	•	•	•	•	•	•

Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Gauzak bakarrik eta zeure kontura egiteko gogoak arazoak ekarriko dizkizu lanean zein bikote-kidearekin. Elkarlanean aritzen eta besteak aintzat hartzen ikasi behar duzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Luzerako lan kontratu ona izateko aukera. Bikote-kidearekin gustura. Hainbat arazoi direla eta leku batetik bestera ibiliko zara, baina etxetik hurbil.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Gorde zure ezinegona, gogor egin beharko baituzu lan, eta emaitzak ez dira berehalakoak izango. Bidaiarako asmoa bazenuen laga beste baterako, ez da eta unerik egokiena.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Heldu gogor beharri, azkenaldian gauza garrantzitsuak alde batera laga baitituzu, eta orain ondorioak ordaintzen ari zara. Erabili daukazun asti apurra lasaitzeko, lar urduri zabilta eta.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Ardurak besteen esku uzteko joera nagusi; lagunak zurekin haserretu daitzek horregatik. Kontuz alkoholarekin, liskarren bat izan dezakezu eta. Tentuz ibili.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Hainbat egitasmok emaitza onak izango dituzte, batez ere andrazkoek bultzatutakoak. Harremanetarako bolada ona, horri esker beharrezko hobekuntzak izan ditzakezu eta.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Ohi baino sentikor ibiliko zarenez bakartasunaren bila joko duzu. Ez atzera ez aurrera hainbat egitasmorekin. Hausnartu horien inguruan. Ez da ezer berri hasteko unea.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Larregizko lanak jota utziko zaitu. Diru gutxiago izango duzun arren, ahalegin du behar gutxiago egiten, bizimodu hobea izango duzu. Horrela jokatu ezean, osasun arazoak izango dituzu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Lelokerengatik bikote-kidearekin izango dituzun liskarek beragandik aldenduko zaituzte. Hausnartu ea harreman horrek erabat asetzen zaituen. Ezetz uste baduzu, amaitu beldur barik, luzera hobeto sentituko zara eta.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Oso borrokazale ibiliko zara, eta horrek ez dizu ezer onik ekarriko. Zaindu zure oldarkortasuna, bestela jendea aldenduko zaizu. Egin kirola adrenalina askatzeko.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Aldaketarako duzun gogo handiak etxean aldaketak egitera bultzatuko zaitu, eta horrek zurekin bizi direnak amorraraziko ditu. Ezer egin aurretik ondo pentsatu zer nahi duzun.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Besteek kale egin dizutela pentsatuko duzu, lagunduko zintuztela esan zuten arren ez baitute ezer egin. Ondorioz, gauzak zeure kontura egingo dituzu, eta horrela konfiantza handiagoa hartuko duzu zeure buruarengan.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Telebegi

Parrilla

Oraindik ez dakit zergatik, baina horrelaxe deitzen zaio telebistako egitarauri. Parrilla. Eta ikastaro hasieran, parrilla berria, ikasleek liburu berriak dituzten bezala. Baina azken hauei liburuak adina interesatzen zaie irakasleak nortzuk izango diren. Eta telebistan ere horixe gertatzen da: parrilla berriaren agertzen diren programa eta emankizunek ze gidari, aurkezle edo zuzendari izango duten jakitea gustatzen da.

Telebistako ikus-entzule, langile eta, noski, telebista kateari berari interesatzen zaio jakitea, ezagutzea. Horregatik, uda sasoiari, etxean dagoen ikus-entzulea telebistan ezer ez dagoela kezkatzen ari den bitartean, telebista barruan, emozioa handia izaten da. Programa berriak egongo ote den, nork aurkeztuko duen, fitxaketa egon den, zenbatekoa izan den, nor joan den kate batetik bestera, haren tokia nork beteko duen... Egia esan, nobedade hauen guztien zurrumurruak uda baino lehen hasten dira eta oporretan gorputzu egiten dira, gero irailean gauzatzeko.

Agorrila heltzen da eta futbol (futbola orain ere) jokalariekin gertatzen den bezala, hemen ere lehengo aurpegi batzuk ikusten ditugu, baina programa, kate edo emankizun ezberdinetan. Beste askok aurreko denboraldiko postuan jarraitzen dute eta formatua, estrategia, ez da gehiegi aldatu. Hala ere, jokoa hasten da, lehia. Kate pribatuetan, batez ere. Albistegiek bata besteari begiratzen diote eta Martitzen lan egiten dutenek ordu madarikaturarekin batera hasten dira, kronikak ematen.

Hirugarren asterako, parrilla berria entzun ordez, programazioa aditzen da.

IBAN TOLEDO/GOITBko teknikaria

"Banekien lanbide hau nire gustukoa izango zela, eta halaxe da"

Iban Ordiziatik etortzen da laneira Arrasatera. Hura da GOITBko teknikarietako bat. Eta oraingoz albistegietarako irudiak hartzen badihardu ere, etorkizunean dokumentalak grabatzea gustatuko litzaloke. Horixe da Ibanen ametsetako lanbidea.

Zer dela eta egin zenituen telebistako teknikari izateko ikasketak?

Argi neukan ikasketak bukatzerakoan ez nuela zortzi orduko lan aspergarririk nahi. Horregatik aukeratu nuen Andoainean ikus-entzunezko ikasketak egitea. Banekien lanbide hau nire gustukoa izango zela, eta halaxe da, pribilegiatu bat naizela esan dezaket.

Eta noiz hasi zinen telebistan lanean?

Andoaingo eskolatik etorri nintzen praktikak egitera. Hiru hilabetez Arrasate Telebistan aritu nintzen lanean. Gero, proba batzuk gainditu ondoren, asteburuetan lanean hasi nintzen, eta ordutik hona, hementxe dihardut.

Gaur egun, zein da zure lana?

Kamerarekin albistegietako irudiak grabatzen ditut, gehienbat. Horrez gain, sarri, editatzen ere eta zuzeneko albistegietan soinu-mahaian. Etxe honetako teknikariok denetarik egin beharra izaten dugu.

Zu ez zara ibar honetako, hortaz, ez duzu zure etxean GOITB ikusteko aukerarik, ez da hala?


Bai, egia da. Niri berdin zait, azken batean, badakit albistegiak nola egiten diren eta zein irudi erabiltzen diren lan egiten dudanean. Hala ere, nire etxekoek egiten dudana ikusi ahal izateak ilusio handia egiten dit. Eta, jakina, lagunei ere erakutsiko nieke zein den nire lana, eta lan horren emaitza.

Zer igarri duzu Arrasate Telebistatik GOITBrako pausoa?

Hasieran, Arrasate inguruko herrietan hasi ginen albistek lan-tzen, eta orain, Bergarara eta Oñatira ere joaten gara. Horixe izan da gure lan egiteko eran aldaketa nabarmenena. Hala ere, aldaketa hori poliki gertatu da; aurrez oinarri batzuk bagenituen eta horrek asko lagundu digu. Nire lan egiteko modua ere aldatu egin da. Geroago eta profesionaltasun handiagorantz goaz.

Eta orain, sistema analogikotik digitalera pasatu zarete. Zelan bizi izan duzu aldaketa hori?

Oraindik goiz da balorazioa egiteko. Ordenagailuak eta programak hor daude, baina moldaketa aurrera eramatea pixka bat kostatuko zaigu. Digitalen irudiaren kalitatea asko hobetuko da, beharbada,



AMAGIOIA LASAGABASTER

"Etxe honetako teknikariok denetarik egin beharra izaten dugu"

"Jaietan kamerarekin grabatzen ibiltzea ez zait batere gustatzen"

etxean ez da aldaketa hori larregi nabarrituko, baina gure lan egiteko era guztiz aldatuko da.

Zein sistema duzu nahiago?

Ni ikasten hasi nintzenean sistema digitalaren garaia zen, orduantxe hasi zen sistema hori zabaltzen. Horregatik, heziketa minimoa, behintzat, badaukat sistema horrekin. Hala ere, oraindik badaukat zer ika-

si. Dena dela, nahiago dut sistema digitala, kalitatea hobetzeaz gain, behin ikasitakoan errazagoa da eta gure lana egitea.

Zer falta da GOITBn?

Udal guztien inplikazioa behar dugu; herri telebista ona egin nahi badugu, beharrezkoa izango da horiek gure proiektuan parte hartzea. Gainera, nire ustez, Goiena

Telebista euskarazko herri komunikabideen erreferente izan behar litzateke, eta hori lortzeko, udal guztiak proiektu horretan egon behar lirateke.

Zuek zein berri grabatu eta emango zenukete gustura?

Euskal Herria aske dela esateko egindako prentsaurrekoa grabatuko nuke gogo handiz.

Orain arte grabatu edo egindako lan gustukoena?

Telebistan *Ikusmiran* moduko dokumentalak grabatzea gustatzen zait.

Eta txarrena?

Jaietan kamerarekin grabatzen ibiltzea ez zait batere gustatzen. Kasu horietan, niri ere kamera aurrean jaiak disfrutatzen ibiltzea gustatuko litzaidake.

GOITBko teknikari ez bazina, non eta zertan gustatuko litzalduke jardutea?


Antzeko lan batean ibiliko nintzateke, kamerarekin dokumentalen bat grabatzen, seguruenik.

AMAGIOIA LASAGABASTER



Oihana Elortza

**GILTZAK EGITEN
HASIZ GEROZTIK,
DEBAGOIENEAN
EZER EZ DA
BERDIN**



Giltza noiz asmatu zuten argi ez badago ere, erabilera erromatar garaian zabaldu zen.

XVI. mendeko dokumentuetan, dagoeneko, Debagoieneko sarrailagintzaren gainean aipamenak daude.

1906an, garai hartako Euskal Herriko lantegirik handienetakoa sortu zen: Arrasateko Cerrajera.

Gaur egun, eskualdean, giltzak egiten eta sarrailagintzan bost lantegik dihardute eta 600 lagun ari dira lanean. Lantegiok urtean 8.000 milioi pezeta inguruko salmentak dituzte.

Atzeskua

MAIDER OSA

Jose Migel Bruña "Txemi"/Motozalea

Noiz eta nola hasi zinen motoen giroan?

Gogoratzten dut txikia nintzela Clint Eastwooden filmak oso gustuko nituela. Film batean Chooper batekin irten zen, eta erabat liluratu nintzen motozale koadrila hura ikusita. Gero, duela hamar bat urte, motozale talde bat eza gutu nuen Gasteizen, eta orduan barneratu nintzen giro horretan.

Nolako da motozaleen bizitza?

Denetarik dago. Niri dagokidanez, adiskidantza eta elkartasunez jositako bizitza da. Gaztelaraz esaten den bezala, "Rodamos para vivir, y vivimos para rodar".

Zein da motoek duten gauza onena?

Asteburua heldu, motoa kargatu, zakutoak motoari lotu, mugitu eta kontzentrazioetara, kontzertuetara... joatea. Hau da, norberaren eta motoaren arteko lotura bat sortzea. Motozaleok lotzen gaituen adiskidantza izugarria da; gizarteari falta zaion dosia eta apaltasuna ditugu.

Musikaria ere bazara, eta doinu gogorak dituzu gustuko. Rock-and-rolla eta motoak oso lotuta daude?

Musika bizitzaren beste pizgarri bat da. Motozaleon pasioa motoak dira, baina baita rock-and-rolla ere. Ez dago festa onik rock-and-rollik gabe.

Zein da eduki duzun lehenengo motoa? Geroa zenbat moto izan duzu?

Lehenengo Yamaha Virago 1.100 bat izan nuen. Gero Honda Shadow 600 bat, eta azkenik Harley Davidson 883 bat. Azken hau salduta dut dagoeneko, eta datorren urtean Harley Davidson handiagoa erosiko dut, diru

apur bat aurreratuta.

Debagoienean motozale asko dago?

Arrasaten bada talde bat ehun bat kide batzen dituen, baina beste estilo bateko motoak dituzte.

Zenbat kilometro egiten dituzu urtean?

20.000 kilometro inguru.

Anoetako Cheyenne tabernara joatea oso gustuko duzu.

Bai, hango jabeak lagunak ditut. Taberna irekitzerakoan ere luzatu genien eskua. Alboan Harley Davidson motoen saltoki bat dute, gainera. Motozaleak batzen dituen taberna bat da.

Baduzu tatuajerik?

Pare bat ditut. Bat izterrean eta beste bat besoan, eta gehiago egiteko asmoa ere badut. Gertatzen dena da *tatooak* orain boladan daudela, eta horrek izorratu egiten nau apur bat. Lehen tribuetako jendeaz aparte motozaleok bakarrik genituen *tatooak*.

"Motozaleok lotzen gaituen adiskidantza izugarria da; gizarteari falta zaion dosia eta apaltasuna ditugu"

"Motozaleon pasioa motoak dira, baina baita rock-and-rolla ere"

► Arrasate / 29 urte / Motozalea

AIPAGARRI



VIRGINIA IMAZ
Bergara

Oihulari Klown-eko akto-reak Txalo antzerki taldearekin dihardu lanean. Hain justu, Bernardo Atxagaren testuan oinarritutako *Banbulo* antzerki lanean. Virginiak *Banbulo* txakurarena egiten du, eta berarekin batera Karmelo Muñoz taldekidea ere ari da. Loli Astoreka eta Jose Kruz Gurrutxagak ere parte hartzen dute antzerki lanean. Ramon Barea da zuzendaria. *Banbulo* joan zen astean estreinatuta zuten.



PATXI USOBIAGA
Eibar

Eibartarra da, 21 urte ditu eta Oviedon jokatu berri den Espainiako Eskalada Txapelketan bigarren geratu da. Eibartarra izan arren, negu partean Mondragoeko rokodromoan ematen ditu orduak eta orduak. Uda partean, ostera, Araotzen. Mondragoeko boolderra inguruko onenetakoa ei da, eta bertan entrenatzen du.

Eskerrik asko **MECAN** konfiantza izateagatik

"Gure ingurunearekiko konpromisoa sendoa da"

2001-03-28an, Ingurumen Kudeaketako
ISO 14001



ziurtagiria eman digute, eta baita Ingurumen Kudeaketako AENOR marka erabiltzeko eskubidea ere, cgm-01/082 Ziurtagiri-kodearekin.

